ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

9 zenbakia 1995eko uztaila

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

7
Joxerra Garzia: administrazioari euskaldun pasiboa izateko baino zerbait gehiago eskatzearen alde.

17
Koldo Biguri: legez kontrako ametsak egiten dituen funtzionarioa esnatu nahian.

18
Josu Zabaleta: itzulpen prozesuan anaforek daukaten garrantzia idazgai.

Erakunde Autonomiaduna
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Udako irakurketak

Bizkarra udako eguzki-galdatan kiskali beharrean, ez al dugu hobe, itzalean eta patxada ederrean, liburu baten plazerrera makurtzea? Tentazioak tentazio, Euskal Herriko hainbat idazle ezaguni eskatu diogu liburu bana gomendatzeko. Beraz, erreportai honetan aurkituko duzu, irakurle, aspertzearen aurkako sendabide ugari: liburu mardulak eta poltsikokoak, arinak eta trinkoak, ezagunak eta ahaztuak, madarikatuak eta goraipatuak. Baztertu eguneroko nekeak eta murgildu zaitez gomendatutako liburuen orrialde aberatsetan.

13 or.

Richard Bourhis:

"Euskal Autonomi Elkartea lurralderik egokiena da euskararen berreskurapena bideratzeko; eta, horretan, Iparraldearen eta Nafarroaren eredu izan behar du"

Richard Bourhis psikologiako katedraduna da Quebeceko Unibertsitatean. Soziolinguistikan aditua, esku hartu du argitaratu berri den *Euskararen Jarraipena* liburuan. Ikuspegi horretatik, ederki asko azaldu dezake zer-nolako egoeran dagoen gure hizkuntza Euskal Autonomi Elkartean, Nafarroan eta Iparraldean. Bere ustez, EAEkoek hauspo-lanak egin behar dituzte eta nafarrei eta iparraldekoei lagundu euskara bultzatzen. Bourhis-en iritziz, Kanadako egoera eta Euskal Herrikoa ezberdinak dira; dena dela, han egindakoak balio dezake, zalantzarik gabe, euskarari arnas berria emateko.

Bestalde, ikertzaile kanadiarrak uste du euskal administrazioa lan bikaina egiten ari dela, eta, lan horretan laguntzeko, ezinbestekoa dela familiaren bidezko hizkuntz transmisioa indartzea, herri-erakundeekin batera ihardutea eta, ahal dela, eztabaida antzuak saihestea.

10 or.

Eztabaida: Amando de Miguelen txostenaren ondoren... zer?

Joan den abenduan, PPk, UAk eta PSE-EEk ponentzia bat aurkeztu zuten Arabako Batzar Nagusietan, lurralde horretako hizkuntz politikaren egokitasuna aztertzeko. Horretarako, inkesta soziolinguistikoa egitea proposatu zuten. Alderdi abertzaleek eta hainbat euskaltzalek ez zuten begi onez jo proposamen hori.

Nolanahi ere, Batzar Nagusiek Amando de Miguel aukeratu inkesta egiteko, eta errezelu zena istilu eta liskar bihurtu zen. Azkenik, inkestaren emaitzek ez dute ezuste handirik ekarri. Orain, hauteskundeak izan ondoren, herritar askok galdetzen dio bere buruari zein diren Arabako alderdi politikoen asmoak euskararekiko. Erantzuna... gure orrietan.

20 or.

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
XIV. UDA IKASTAROAK (DONOSTIA - 1995)

CALIDAD

1.- Calidad en los servicios sanitarios: una estrategia para el cambio (?)	abu. 2/4
2.- Calidad total en educación (I)	abu. 3/ira. 2
3.- Calidad total, concepto global de gestión en el umbral del siglo XXI (I)	ira. 4/5

CIENCIA Y TECNOLOGIA

1.- Diseño industrial (M)	uzt. 11/13
2.- Biwit 95. "Data Management Systems" (M)	uzt. 19/21
3.- Nuevas perspectivas en la generación y uso de energía (I)	abu. 31/ira. 2
4.- Transferencia de tecnología y de gestión empresarial en la Unión Europea (I)	ira. 4/6

CIENCIAS DE LA INFORMACION

1.- Prensa regional: desafío de futuro (M)	uzt. 5/8
2.- Formatos de televisión: tendencias y géneros (I)	uzt. 10/12
3.- El cine 100 años después: creatividad y tecnología (I)	abu. 23/25
4.- El fenómeno de las tertulias en radio y TV (M)	abu. 28/30

CIENCIAS SOCIALES

1.- Legitimidad y gobernabilidad en la democracia actual (I)	uzt. 4/7
2.- Seminario europeo. Perspectivas de ampliación comunitaria (M)	uzt. 10/14
3.- Voluntariado y calidad de vida (I)	uzt. 13/15
4.- Una política para la tierra (I)	uzt. 17/19
5.- La conurbación Donostia-Bayona, un proyecto de ciudad europea (I)	uzt. 26/28
6.- Brujería, esoterismo (I)	abu. 21/23

CREADORES VASCOS

1.- La década creadora: cultura y sociedad civil en el País Vasco (1960-1970) (I)	uzt. 17/19
2.- Cristóbal Balenciaga y el diseño hoy (I)	uzt. 27/29
3.- Arte y artistas vascos en la década de los 60 (I)	uzt. 20/22

DERECHO

1.- Justicia y jueces en la época contemporánea (I)	uzt. 10/12
2.- Eutanasia y criminología, hoy y mañana (I)	uzt. 13/15
3.- 50 años de Naciones Unidas: la sociedad internacional en la encrucijada (I)	uzt. 17/19
4.- La planificación lingüística en las administraciones públicas (I)	uzt. 20/22
5.- La tolerancia en la sociedad actual (M)	abu. 22/23

ECONOMIA

1.- La economía en la nueva sociedad de la información (I)	uzt. 6/7
2.- Desarrollo sostenible: un concepto a clarificar (I)	uzt. 6/8
3.- Economía de la educación (I)	ira. 4/5
4.- A la excelencia en los servicios financieros por el camino de la calidad (M)	ira. 4/7
5.- El sector público y la riqueza de las regiones (I)	ira. 6/8

HEZKUNTZA/EDUCACION

1.- Hizkuntzen irakaskuntzarako murgiltze programak (B)/Programas de inmersión para la enseñanza de lenguas (I)	uzt. 10/12
2.- Gaitasun pragmatikoa eta bigarren hizkuntzaren erabilera (B)/La competencia pragmática y el uso de la segunda lengua (I)	uzt. 13/15
3.- Evaluación y corrección en el aprendizaje de lenguas extranjeras (I)	ira. 4/6

HISTORIA

1.- El País Vasco y el mar (I)	uzt. 19/22
2.- Aproximaciones a la masonería (I)	uzt. 26/28
3.- Formas políticas y centros de poder en la cuenca del Mediterraneo en la antigüedad (I)	abu. 1/4

HIZKUNTZALARITZA ETA LITERATURA / LINGÜISTICA Y LITERATURA

1.- Gerra irudiak Euskal Herriko idazleengan (B)/ Imágenes de la guerra en los escritores del País Vasco (I)	uzt. 17/19
2.- Euskara biziberritzeko saioak (B)	uzt. 17/18
3.- Herri literatura (B)/Literatura popular (I)	abu. 31/ira. 1

MEDICINA

1.- Medicina natural en el País Vasco y medicina biológica (I)	uzt. 6/8
2.- Cáncer de mama: últimas respuestas a una epidemia del siglo XX (I)	uzt. 20/22
3.- La medicina al servicio de la voz (I)	uzt. 26/28
4.- Fatiga muscular: recuperación física en el deportista (I)	abu. 1/3
5.- 10 años de SIDA en Euskadi. 1985-1995 (I)	ira. 1/2

NUTRICION

1.- Gastronomía y ciencia de los alimentos (I)	abu. 24/26
2.- Nutrición y dietoterapia (I)	abu. 28/30
3.- Nutrición clínica y preventiva (I)	abu. 31/ira. 2

PSICOLOGIA

1.- Intervenciones psicosociales en gerontología (I)	abu. 28/30
2.- Retos de la psicología clínica en el año 2000 (I)	abu. 31/ira. 2
3.- Anorexia y bulimia nerviosas. Terapia familiar (I)	ira. 4/6

IDIOMAS PARA EXTRANJEROS

1.- Idiomas para extranjeros (I)	mai. 29/eka. 23
2.- Idiomas para extranjeros (I)	uzt. 3/28
3.- Idiomas para extranjeros (I)	abu. 1/25

(I) = Ikastaroa
(M) = Mintegia
(B) = Bapateko itzulpena

PAPER BIRZIKLATUA

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Joseba Lozano

Diseinu Grafikoa: Gabinorte

Zenbaki honetako lankideak:
Jon Alonso, Koldo Biguri, Manuel Braña, L. Egia, Jexux Eizagirre, Luis Elizondo, Natxo Escobar, Joxerra Garzia, Juan Garzia, Tere Irastorza, Itzulpen Zerbitzu Ofiziala (IZO), Jon Kortazar, Anjel Lertxundi, Karlos Linazasoro, Joseba Lozano, Luma, Gerardo Markuleta, Begoña Matxain, Estepan Plazaola, Joxean Sagastizabal, Joseba Urkia, Josu Zabaleta, Patxi Zubizarreta, Imanol Zurutuza.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argitaratutako artikuluak berridatz daitezke, bai osorik, bai zatika, baina artikuluak nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigorrez bere egiten artikulu eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

Legezko Gordailua: BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Adriano VI, 20. 01008 VITORIA-GASTEIZ. Tlf. 18 76 00. Faxa: 18 76 02.

PERTSONAIA

EGUZKITZE

Bertsolaria eta telebistako aurkezlea, Xabier Perez azpeitiarra Euskal Telebistako aurpegi ezagunenetarikoa da. Xabier Urolako ibarrean jaio zen 1966ko ekainaren 9an; 29 urte ditu, beraz. Familiatik omen datorkio Eguzkitze goitizena, familiako guztiei hala deitzen diete eta. Bertsolaritzak eta telebistak ia-ia ez diote minuturik ematen atseden hartzeko. Dena den, astia duen bakoitzean, gehien gustatzen zaion jokoan egiten du: pilotan, alegia.

Nola hasi zinen lanean komunikabideetan?
18 urte nituela, batxilergoa amaitu eta Euskadi Irratian hasi nintzen lanean. Han, 21 urte bete arte lan egin nuen, eta gero... telebistara. 7 urte daramat orain Euskal Telebistan.

Esnatu, eta zein da egiten duzun lehen gauza?
Iratzargailua madarikatzea.

Zein motatako arropa duzu nahiago?
Telebistako arropa eta zenbait langilek lanerako jazten duten buzoa nahiko antzekoak dira. Nire buzoa, behar bada, dotore samarra da, baina buzoa baino ez da. Albistegia bukatu ondoren, arropa horiek armairuan geratzen dira, eta nire ohiko arropa jazten dut: praka bakeroak eta alkondara edo kamisetaren bat.

Gustatzen al zaizu zinea?
Gustukoa dut, bai. Lehen, igandeetan joaten nintzen, baina, aspaldi honetan, igandeetako kirol saioek ez didate aukera handirik uzten joateko. Egia esan, zine kontuetan ez naiz aditua, baina bai zaletua.

Soldaduska egin al zenuen?
Bai. 86an, Valladoliden.

Atsegin duzun pertsonaia historikoren bat?
Txirrita.

Zein liburu ari zara irakurtzen orain?
Euskaldunon Egunkariak argitaratutako *estilo liburua*. Ikutu txiki bat ematen ari natzaio.

Zer da zailagoa, bertsotan aritzea ala telebistan agertzea?
Biak dira zailak. Bertsoak egitea ez da batere samurra, jendeak asko eskatzen baitigu goi-mailan gabiltzanoi.

Albisteak ala kirol saioak?
Lan desberdinak egin behar izan ditut telebistan. Orain pilota partiduez arduratzen naiz, eta, beharbada, horixe da niretzat dagoen lanik errazena eta gusturago egiten dudana. Albistegia neketsuagoa da, oraindik ere ikasteko dexente dudalako, eta nahiko lan garrantzitsua delako. Gaur egun, albistegiak ematen dizkit lanik handienak.

Telebistako saiorik onena?
Bat baino gehiago ditut gogoko. Nolanahi ere, *Goenkale* aipatuko dut, baten batek pentsatzen badu ere erantzun errazegia dela. Eta telesaio hori aukeratu dut oso gauza zaila lortu duelako: jendea euskaraz erakartzea.

Euskal Telebistak beharrezko ez duen saioren bat?
Saiorik ez dakit, baina... nire ustez, zentzu handirik ez duena eta pixkanaka-pixkanaka kenduko nukeena ETBko bigarren katea izango litzateke.

Kamara aurrean zaudenean, ba al duzu maniarik?
Maniarik ez. Dena dela, oso hurbil jarri behar izaten dizkidate kamarak, izan ere, horrela, askoz hobeto kontzentratzen naiz; gainera, kamarak urruti jarriz gero, betaurrekorik gabe ez dut ikusten gure "txibatoa": telepromterra.

Eredu bila

Duela zenbait hilabete jaso nuen *Hizkera argiaren bidetik* liburua eta, benetan diot, *Administrazioa euskaraz* aldizkariarekin batera, baliagarri gertatu zaidala eguneroko ihardunerako. Baliagarria diot, euskara laneko hizkuntza izan dadin behar-beharrezkoa delako nolabaiteko aholku, gomendio edo arauak izatea, administrazioko hizkuntzaren berezitasunez jabeturik, gure idazkiak argiak, zehatzak eta ulerterrazak izan daitezen.

Sarri askotan, eta batez ere administrari eta administrari laguntzaileok esan izan dugu askoz errazagoa izango litzatekeela gure lana, gaztelaniaz dihardutenen antzera, idazkien ereduak izango bagenitu, dela ofizio bat idazteko, dela bilera agiri bat idazteko edo eskabide arrunt bat egiteko. Inoiz, gaztelerazko eredua hartu eta itzuli edo "fusilatu" beharrean gertatu izan gara, beti ere, gaztelaniaren morrontzan eta, seguru asko, errezeloren batekin, gainera.

Orain ordea, nahi izanez gero, eskuartean ditugu hain beharrezkoak genituen eredu horiek, argi eta txukun eta inolako konplexurik gabe erabiltzeko modukoak, gainera. Nolanahi ere, iritziak iritzi eta laudorioak laudorio, baditut zalantzatxo batzuk: zenbaterainoko zabalkuntza eman zaio liburu honi? Zenbat lagunek jasotzen dute aldizkaria? Euskarazko eskolak ematen dituzten irakasleek ba al dute argitalpen hauen berririk? Eta galdera hauek datozkit burura, jakin badakidalako, batetik, nire inguruko lankide dexentek ez duela ezagutzen, eta, bestetik, hizkuntza eskakizunetako azterketara aurkezten diren zenbait ikaslek, askotan, euskaraz lan egiteko gai garenongana jotzen dutela, besterik ezean, idazki ereduen bila. Esanak esan, zorionak egin duzuen lan eskergagatik eta aurrera!

Arantxa Muxika
Gasteiz

Alfabetatze teknikoa

Bada garaia orori ozen adierazteko Ertzaintzan ere euskaldunak eta euskaltzaleak daudela, euskaraz lan egin eta euskaldun bizi nahi dugunok eta euskara herritarrei zerbitzu egokia eskaintzeko ezinbesteko tresnatzat jotzen dugunok. Baina, zoritxarrez, euskara erabiltzeko borondate garbia izan arren, oztopo latzak ditugu: oztopoak justizia administrazioan, oztopoak geure artean eta oztopoak hizkuntza polizialean. Oraingo honetan bazter utziko ditut lehenengo biak eta hizkuntza polizialaren gaiari ekingo diot.

Lan poliziala berezia da eta berezitasun horrek, era berean, hizkuntza berezia eragiten du. Funtsean, nik esango nuke hizkuntza juridiko-administratiboaren atal bat dela, baina lexikoaren aldetik oso ezaugarri propioak ditu espezialitate, azpiespezialitate eta agiri mota ugari daudelako. Gure esperientziak erakusten digu EGAduna izateak ere ez duela asko laguntzen eta ezer gutxi lortuko dela euskaldunentzako alfabetatze tekniko ikastarorik antolatzen ez bada. Ondo deritzot hiztegiaz, itzulpen teoriaz eta estiloaz IVAP-HAEEk eta bestek egiten dutenari, hala ere hori guztia aski ez delako ustean nago. Polizi agiriak euskaraz jartzea zaila eta nekosoa da oso eta, ziur asko, berdin gertatzen da administrazioko hainbat sailetan. Eskertuko nuke baten batek honetaz zerbait idaztea.

Josu Segura
Ertzaintzako ofizialondokoa
Polizi Ikastegiko irakaslea

Informazioa ala manipulazioa

Araban euskarari buruz bizi dugun eztabaida dela eta, harrituta utzi nau egunkarietan azaldutako berri batek. Aipatutako berri hori lehenik *El Mundo* egunkarian irakurri nuen, eta titularrak honela zioen:

"Ehunetik hirurogeita hamabost funtzionariok egiaztatu dute hizkuntza-eskakizuna Arabako Foru Aldundian."

Arabako Foru Aldundiko funtzionarioa naizenez eta funtzionarioen euskalduntze prozesuan murgilduta nagoenez, arreta handiz irakurri nuen berri osoa. Bertan, kazetariak Foru Aldundiko Lehendakaritzako diputatuak aurreko egunean plazaratutako datuen transkripzioa besterik ez zuen egiten eta, mementuz, han bukatu zen dena.

Baina, nire harridurarako, handik bost minutura, berri bera *El Correo Español*en irakurri nuen, eta titularrak honela zioen:

"Ehunetik berrogeita bederatzi funtzionariok bakarrik gainditu dute hizkuntza-eskakizuna, 84.000 ordu eman ondoren."

Garbi zegoen bietatik batek datuak manipulatu egiten zituela, zeren matematiketan, oraingoz behintzat, bi gehi bi lau baitira. Nire harriduratik atera nahian, bakoitzak ematen zituen datuen konparaketa egin nuen eta, zorionerako edo zoritxarrerako, nire susmoak baieztatu egin ziren.

*El Correo Español*ek, euskarari buruz duen jarrerari eutsiz, ematen zituen datuak erabat manipulatuak azaltzen zituen. Ez da egia ehunetik berrogeita bederatzi funtzionariok gainditu ditugula hizkuntza-eskakizuneko azterketak. Guztira, 125 funtzionariok dugu hizkuntza-eskakizuna, eta horietatik 27k ez dute hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharrik, euren adinagatik egiaztatze prozesutik kanpo daudelako. Beste 2k, EGA titulua dutenez, baliokidetuta dute hizkuntza-eskakizuna. Beraz, 96 funtzionariotatik 61ek gainditu baditugu azterketak, portzentaia ez da %49a, baizik eta %63,53a.

Titularrean erabilitako "bakarrik" eta "84.000 ordu eman ondoren" aipamenak alde batera utzita, garbi erakusten dutelako berriaren azpian dagoen asmoa, onartezina da datuen manipulazio lotsagabea.

Ez naiz gaur goizean jaioa eta horregatik badakit egunkari bakoitzak bere ideologia duela, *El Correo Español*en kasuan, euskarari dagokionez, etsai amorratu batena, historiak hala probatzen didalako. Baina jakin dezatela egunkariaren zuzendari eta nagusiek euskaldunok oraindik ere matematikaz zerbait badakigula.

Javier Ormazabal
Gasteiz

Gutunak makinaz idatzi eta, gehienez ere, 15 lerro izango dituzte. Gutunarekin batera, nahitaez, igorlearen izen-abizenak eta NANa adierazi beharko dira. Jasotako gutunak ez dira itzuliko. Toki-arazorik izanez gero, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ **aldizkariak eskubide osoa izango du gutunak laburtuta argitaratzeko. Halaber,** ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ **aldizkariak bere erantzuna eman ahalko du sail honetan bertan.**

Administrazioan Euskara Bultzatu Erabiliz (AEBE plana) Bergarako Udala



Badira dagoeneko zenbait hilabete Bergarako Udalean euskararen erabilera areagotzeko plan berri bati ekin geniola. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiko, Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko eta Bergarako Udaleko ordezkariok dihardugu elkarlanean. Une honetan plana bera diseinatzeko azken lanetan gabiltza eta hemendik gutxira martxan jartzekoa da.

Hizkuntza ikastea eta erabiltzea: aurreko saioak

Esan beharra dago orain 5 urte Bergarako Udalean hizkuntza normalkuntzaren arloan lanean hasteko nahiko egoera ona genuela langileen ezagupenaren aldetik. Lan administratiboa zuten langile gehienak euskaldunak ziren eta horietako erdiak inguru nolabaiteko alfabetatze-eskolak hartuak.

Ezagutzaren kasuan ez bezala, erabilerarenean, berriz, egoera nahiko kaxkarra zen; ahoz, euskaldunen artean ere erdara zen nagusi; eta idatzizkoan ere, nahiz eta inprimaki gehienak elebitan zeuden, sortu, kasu solteren batean kenduta, erdaraz sortzen zen.

Laneko aukera ona zegoen, beraz; baina urratsez urrats lana erdaraz egitetik euskaraz egitera pasatzea falta zen.

Eta esan beharra dago erdaratik euskararako salto hori emateko hainbat ahalegin egin direla: era askotako prestakuntza-bideak eskaini zaizkie (ikastaro konbentzionalak, idazkera-estiloa lantzekoak, administrazio-edukiak lantzekoak, etab.); kontratazio berrietan jarraitutako politikari esker, langile berri gehienek euskara maila ona izan dute; erabilera arautzeko hainbat erabaki hartu dira; hasiera-hasieratik jarri ziren martxan trebatze-saioak eta langileentzako bestelako laguntza bideak, etab.

Ahalegin guzti horrek eman ditu bere fruituak eta zerbitzuz zerbitzu egoera zein den adierazteak luze joko lukeen arren, esan dezadan gaur egun aktarik gehienak euskaraz jasotzen direla eta hainbat zerbitzutan (Kultura, Kirola, Kontuhartzailetza...) neurri handi batean euskaraz funtzionatzen dela.

AEBE plana: beste bultzada bat

Orain AEBE planaren bitartez bultzada berri bat eman nahi genioke euskararen erabilerari, euskara Bergarako Udaleko ohiko lan eta zerbitzu hizkuntza izan dadin. Horretaz aparte, ezagutzaren aldetik dugun egoera ona aprobetxatuz, planak eragin biderkatzailea izan nahiko luke herritarrekiko, zerbitzu profesionalekiko eta beste erakundeekiko.

Plan honek Bergarako Udalerako dakarren berritasun edo ekarpen nagusiena erabilera plan osoago eta zehatzagoa izatea da, nire ustez.

Zerbitzuz zerbitzu langile guztien lan-eginkizunak eta lan-harremanak aztertu dira eta, horri esker, lehen ez genuen informazio dexente lortu da eta punta asko (erdaraz egiten diren idatziak, euskara kaxkarrean doazenak...) lotzeko eta erabaki zuzen eta egokiagoak hartzeko aukera emango digu.

Horretaz aparte, planean garrantzi berezia emango zaio prozesuan parte hartzen duten guztien adostasuna lortzeari eta hasieratik bertatik langile zein ordezkari politiko guztiei ahalik eta informaziorik zuzenena eman zaie eta planari buruz dituzten iritzi eta jarrerak jaso dira. Esan beharra dago langileen gehiengo handi bat plana martxan jartzearekin ados dagoela.

Lan metodologiak

Ezarritako helburuak lortzeko, hiru bide nagusi jorratuko dira. Alde batetik, langileen prestakuntza, motibazioa eta inplikazioa areagotzea. Atal honetan izango genituzkeen tresnak langiroko trebakuntza, komunikazio-zirkuluak (zenbait lantegitan "kalitate-zirkuluak" izenarekin aplikatzen den teknikaren antzekoa, langileen partehartzea bultzatzera bideratua), eta prestakuntza-ikastaroak izango lirateke. Prestakuntza ikastaroei dagokienez, esan beharra dago, berez, Hizkuntza Eskakizunen Planaren baitako prestakuntza prozesua ia amaitua dagoela; baina, hala ere, behar jakinei erantzuteko prestakuntza ikastaroak eman beharko direla aurrerantzean ere.

Bigarrenik, langileek lana euskaraz egoki gara dezaten beharrezko dituzten baliabide materialak eskaintzea izango genuke. Alde horretatik, hainbat arlo jorratu nahi lirateke, hala nola: terminologia lanketa, agiri-ereduen prestakuntza, informatika programen azterketa, lanerako beharrezko dituzten oinarrizko dokumentuak eskaintzea, etab. Era berean, itzulpenaren bidea ere erabili beharko da baina, beti ere, erabilera planaren helburuaren menpe jarriz eta ez ohiko bihurtuz.

> **Arreta berezia eskaini nahi zaio hizkuntzaren kalitateari, hizkuntza ulerterraza eta zuzena erabiltzeari**

Azkenik, urratsak eman nahi dira Udalari nolabaiteko zerbitzua eskaintzen dioten enpresek pixkanaka-pixkanaka zerbitzu hori euskaraz eskain dezaten.

Eta hiru bide horien jomuga euskara komunikazio-tresna egoki izatea denez, arreta berezia eskaini nahi zaio hizkuntzaren kalitateari, hizkuntza ulerterraza eta zuzena erabiltzeari.

Datorren ikasturtearen hasieran, akaso, martxan

Planaren diseinua amaitzen dihardugu une honetan eta, gero, langile eta ordezkari politiko guztiei emango zaie bere berri, aztertu eta zuzenketa proposamenak egin ditzaten. Jarraian, behin betiko diseinua egin eta Udaleko Osoko Bilkurak onartuko du. Uda ondorenerako jarri nahi litzateke martxan. Antzuolako Udala ere bidelagun izango dugu 3 urtetan zehar.

Estepan Plazaola
Bergarako Udaleko euskara dinamizatzailea

GONBITA

Nondik-norakoak

Gonbita, bilera-deiarekin eta deialdiarekin batera, administrazioan deiak egiteko erabiltzen dugun idazkia da. Gonbitaren bidez, norbaiti gizarte-ekintza baterako (liburu baten aurkezpena, egoitza baten inaugurazioa...) dei egiten zaio. Edozein kasutan ere, hartzailea administraziokoa zein administrazioz kanpokoa izan daiteke.

Idazteko irizpideak

Gonbitean adierazten dugun mezua laburra eta zehatza denez, idatziak ere halakoa izan behar du. Bestalde, formula eta esamolde finkoak ditu; hori dela eta, idazterakoan, egitura hertsi horietatik ateratzeko aukera gutxi izango dugu.

Osagaiak

Gonbitaren osagaiak atal berezituetan eman behar dira. Hona atalok:

Hasiera

Atal honetan, erakundearen logoarekin batera, gonbita egiten duenaren kargua jasotzen da, lehen pertsonan, *nork* kasuan eta letra larriz idatzirik.

Gorputza

Atal hau hirutan banatzen da: sarrera, gonbita bera eta gonbitari buruzko zehaztasunak. Ikus ditzagun banan-banan:

- Sarrera. Gonbitari sarrera egiteko, *atsegin handiz* edo formula baliokideren bat erabiltzen da.

- Gonbita. Idatziaren gunea *gonbidatu* aditzak markatzen du. Tratamenduari begiratuz, igorleak singularreko 1. pertsona (*nik*) erabil dezake, hartzailearentzat bigarren pertsona (*zu*) utziz. Esandakoak kontuan, *gonbidatzen zaitut* da gomendatzen dugun esapidea. Ondoren, nahi izanez gero, gonbidatuaren izen-abizenak edota kargua adieraziko dira koma artean. Eta, azkenik, pertsona jakin hori zertara gonbidatzen dugun jakinarazi behar da.

- Gonbitari buruzko zehaztasunak. Gonbita egin ondoren, oso argi utzi behar dugu zein egun, ordu eta tokitan izango den gizarte-ekintza hori. Zehaztasun horiek emateko era asko dago: esaldi batean, atalka...; guk, argitasunaren onetan, hau proposatzen dugu:

Eguna: 1994-07-05 (asteartea)
Ordua: 18:00
Tokia: HAEEko bilera-aretoa
(Adriano VI kalea 20.
01008 Vitoria-Gasteiz)

Aurreko datuez gain, bestelako argibideak ere eman daitezke, hala nola: zein pertsona ospetsu bertaratuko den, nor izango den hizlaria (halakorik bada) etab.

Amaiera

Azken zatian honako datuok jaso ditzakegu:

- Gonbita bidaltzen duenaren izen-abizenak (*nork* kasuan eta lehen pertsonan).

- Adeitasunezko esaldia. Horretaz baliatzea aukerakoa da. Erabiliz gero, *bide batez, nire onginahia adierazten dizut* edo tankerako esaldiren bat idatzi beharko genuke.

- Toki-egunak. Hauek emateko bide ugari dago. Ikusi, bada, ondorengo biok:

Donibane-Lohitzune, 1994ko irailaren 1ean
Donibane-Lohitzune, 1994-09-01 (laburrago).

Ez da beharrezkoa gonbita izenpetzea; hala ere, egin egiten da, eta gure ustez, ondo dago, mezua pertsonalagoa baita horrela.

Noizbehinkako argibideak

Batzuetan, testuan sartzen ez den beste hamaika argibide eman behar izaten da gonbitean (txartela aurkeztu behar dela, erantzun egin behar dela...). Informazio hori guztia gonbitaren behealdean ezagutaraziko dugu, honako laburduraren ondoren: *Oh.* (oharra).

Joseba Lozano
HAEEko administrazio-hizkeraren arduraduna

HABE

NIK, HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEKO ZUZENDARIAK

atsegin handiz gonbidatzen zaitut, Xabier Ruiz Mendiola, antolatu ditugun *Helduen Irakaskuntza* ihardunaldietara.

NIK, KULTURA SAILEKO EUSKARAREN SUSTAPENERAKO ZUZENDARIAK

atsegin handiz gonbidatzen zaitut, Isabel Armendariz Lopetegi, argitaratu berri dugun *Euskal kultura gaur* liburuaren aurkezpenera.

Eguna: 1994-11-08 (asteartea)
Ordua: 18:30
Tokia: Eusko Jaurlaritzako hitzaldi-aretoa
(Wellington Dukearen kalea 2, Vitoria-Gasteiz)

Nik, Anselmo Zubiaur Alkortak, bide batez, nire onginahia adierazten dizut.

Vitoria-Gasteiz, 1994ko azaroaren 2an

Oh.: aurkezpenera gonbit hau eraman behar duzu.

Euskararen Administrazioa

Administrazioa ugazabatzat hartzeko joera oso hedatua ikusten dut gure artean: neurriz gaineko errespetoz gehienetan —nahiz eta neurriz gaineko errespetorik ezaz joandakoek duten hedabideetan oihartzunik zabalena—, mesede eskean ari denaren lotsa modukoaz beti, eta baita beldurrez ere gehiegitan. Administrazioa gu zerbitzatzeko ez, baina gu zaindu, jagon, begiratzeko balego bezala. Jakina, Administrazioa bera ez da askorik ahaleginduko gure jarrera hori aldatzen.

Euskararekikoan ere halaxe jokatzen ote dugun errezeloa daukat. Orain artean, behintzat, geuri euskaldun izaten ez galerazteko adina euskaldun dadila besterik ez diogu eskatu ohi, euskaldun PASIBOa izan dadila.

Areago jo behar genuke: denetan ezin baldin bada, non edo han, alorren batean edo bestean aintzindari eta eragile izatea eskatu behar genioke, hanka sartzeko, edo inor mintzeko beldurrik gabe.

Ez naiz, ordea, kantitateaz ari, kantitate zaindari askotxo ikusten baitut bazterretan, soziolinguista eta antzeko. Ongi daude horiek denak, eta beude, beraz, nigatik behintzat. Ongi da, adibide bat jartzearren, Administrazio guztian nola-hala, euskara hutsean edo (maizago gertatzen dena) elebietan egindako inprimakiak erabiltzea eskatu eta bultzatzea. Baina hori baino beharrago uste dut nik litzatekeela zenbait alorretan edota —hipotesirik minimalistarenean— alorren batean behintzat inprimakiak euskara modu askotan saiatzea. Eta euskaraz jartzeaz gain, euskaraz jarritako horiek jendeak zer moduz hartzen dituen, erdarazkoak baino hobeto ulertzen dituen, eta abar. Hizkuntza kontuetan berantiar izateak baditu, edo izan behar lituzke, bere abantailak ere.

Administrazioari, orain artean, euskaldun PASIBOa izateko eskatu diogu

Nik neuk, horrela jokatzea eskatuko nioke Administrazioari, hori baita aurrera egiteko bide bakarra. Hedabideetako adibidea hortxe daukagu. Kuantitatiboki, egia da euskararen presentzia gero eta txikiago dela (gero eta telebista eta irrati kate gehiago hartzen baita, kolore guztietako erderatan). Baina euskararen aukera egin duenak badu gaur egun euskaratik atera gabe bere nahia non aserik. Besterik da, hor ere egin litekeen guztia egiten ote den.

Gaur egun, eta ez dut uste euskararekiko alferrena ni neu izango naizenik, alferrikako zaizkit Administrazioak egiten dituen hainbat eta hainbat euskararen aldeko ahalegin, euskararen onerako omen direnak. Aitor dut: erdararen kalko huts —oker ez esatearen— zaizkit gehientsuak, eta ele bietan etorriz gero, erosoago ohi zait zuzenean jatorrizkora jotzea. Txarrena da lanordu asko dagoela alferrikako lan errutinazko horietan, jende (itzultzaile) onaskoak ari zaizkigula zentzugabekeria horretan erretzen... eta euskarak ez duela luxu hori bere gain hartzerik. Okerrena, halere, zera da: euskaraz aurreratzen ari garela omen dioten inkestak eta sasiazterketak gizentzeko baliatzen direla alferlan horiek guztiak.

Izan ere, KUANTOfrenia gurtzen duen aroan bizi gara. Badakigu zehatz-mehatz zenbat orrialde idazten den euskaraz urtean; badakizkigu gauza guztien eta bakoitzaren portzentaiak, zenbakiak, zifrak, kopuruak. Informatuta gaudelako uste harroan bizi gara. Baina ez dakigu portzentaia, zenbaki, zifra eta kopuru horiek giza-neurrietara errenditzen, ez dakigu zentzuz interpretatzen, denak nahasian ematen ditugu, Shakespeareren soneto euskaratuak, 73 orrialde, Euskal Herriko Autonomia Elkarteko Albistariaren euskarazko 10.000 orrialde. Denera, 10.073 orrialde euskaraz argitaratuak. Bai, kuanto!

Eta zer? Hizkuntzarenean, eta kulturgintzan orohar, behar-beharrezkoak dira kontaduriak. Baina kontaduria, kultur-politika zentzudun baten baliabidea baizik ez da. Eta baliabideak helburu bihurtzen direnean ez dago ataramentu onik.

Joxerra Garzia
Idazlea

EAEko 6.903 funtzionariok egiaztatu dute hizkuntz eskakizunen bat orain arte

HAEEk emandako datuen arabera, 1.476 funtzionariok lortu dute lehen hizkuntz eskakizuna, 2.962k bigarrena, 1.818k hirugarrena, 276k laugarrena eta 371k eskakizun teknikoa.

Erakunde bakoitzari begira, 6.903 horietako gehienak (%47) udal langileak dira, %29 Eusko Jaurlaritzakoak eta %24 foru aldundietakoak. HAEEk jakinarazi duenez, 1.239 funtzionario aurkeztu dira administrazioak dei egindako azken azterketetara, eta, horietatik, 743k (%60 inguru) lortu dute froga gainditzea.

Dirulaguntzak euskarazko aldizkarietarako

Eusko Jaurlaritzak 80 milioi pezeta emango ditu 1995ean, egunerokoak ez diren euskarazko aldizkako argitalpenei laguntzeko. Euskadi mailan edo lurralde historikoetan banatzen diren aldizkariek, gehienez ere, hamahiru milioi t´erdi pezeta jaso dezakete, edukia edozein izanda ere. Herrietan edo eskualdeetan banatzen diren argitalpenek, ordea, hango gizarte, natura, kultura, kirol, politika eta antzeko gaiak jorratu behar dituzte, hiru milioi t´erdiko dirulaguntza eskuratu ahal izateko.

Europako Elkarteetako Batzordearen dirulaguntzak

Europako Elkarteetako Batzordeak dirulaguntzak.emango ditu, eskualdeetako kulturak eta hiztun gutxiko hizkuntzak babestu eta bultzatzeko. Dirulaguntza horiek jaso ahal izateko ezinbestekoa da ekintza-proposamen bat idaztea Europako Elkarteko hizkuntza ofizialetako edozeinetan. Proposamen hori, gutun ofizialarekin eta eskabidearekin batera, 1995eko irailaren batean baino lehen aurkeztu behar da. Eskabide-orria eskuratzeko eta bestelako argibideetarako jo ezazue ondorengo helbide honetara:

COMISION EUROPEA
D.G.XXII
Mme. O. Profili
Lenguas regionales o minoritarias, B - 7 6/60
200, rue de la Loi/Wetstraat
B-1049- BRUSELAS
Fax: 07/32 2 2964258

1.100 liburu euskaraz 1994an

Iaz, 44.530 liburu argitaratu ziren Estatuan; horietatik 7.000 inguru galegoz, katalanez eta euskaraz. Gure hizkuntzan plazaratutako liburu-kopuruak gora egin du berriro ere 1994an; horren froga, urte horretan argitara eman diren 1.100 liburu berriak.

Euskararen erabilera administrazioan

HPINek, HAEEk eta HABEk antolatutako jardunaldi hauek Zornotzan izan dira ekainaren 22an eta 23an. Jardunaldien helburua honako hau izan da: ezagutzera eman administrazio publikoetan, eta batez ere, udalerrietan eta foru aldundietan zer-nolako egitasmoak gauzatzen ari diren euskararen erabilera bultzatzeko. Jardunaldietan, orotara, sei saio izan dira, taldekako iritzi-trukaketa bat eta mahainguru bat.



Aldizkari bat akaso

Ustekabean etorri zitzaion eskaintza. *Atzera xamar bada ere*, esan zioten, odol berria behar zutela. *Gazte jendearen botoak jasotzeko*. Eta ustekabean —hala ere, espero zutela halakorik aitortuko zieten kazetariei, gogor arituak zirela lanean azken aldian—, ustekabean gora egin zuten, eta besteren pronostiko guztiak zapuztu. Zinegotzi kargua egokitu zitzaion, bada, ustekabean, zerrendan oso aurrean ez egon arren. Agintzea ere ez zitzaien ba egokitu, ustekabean! Jakina, ez zuten aginte osoa, baina mutur batetik behintzat eutsia zioten aginte-makilari, gobernu-hitzarmena medio.

Gazte izaki —zaharrenek ere ez zuten gogoan hain gazte halako kargura iritsitakorik—, Gazteria Arloa geratu zen bere esku —*neure gainean dudan arloa*, esango zuen makina bat aldiz gerora, harlauza pisutsu bat garraiatzen ari bailitzan—. Ez zen Hazienda Saila, baina tira, ezta ahuntzaren gauerdiko eztula ere!

Jakin bazekien ohitura ona zela, tradizio handikoa, karguaz jabetu eta, nonbait irakurria zuenez, gerotik gerora ibili gabe, zer edo zer, aldizkari bat akaso, argitaratzen hastea, guztiek ikus zezaten bere eskua, han zela bera, gartsu, aurrekoek bazterretan utzitako hautsak harrotzeko gertu.

Lehenbiziko hartan bertan bota zion zuzendariari, zer iruditzen zitzaion *horrelako zertxobait egiteko aukera aztertzeari ekitea*, eskarmentu gehiagoko alderdikideen hizkera imitatuz. Zuzendariari, jakina, ongi iruditu zitzaion. Pentsatuko zuela zer edo zer hurrengorako. *Ezin bestela izan*, berak bere golkorako, beren bozeramaleak hain gogoko zuen esapideaz baliatuz.

Jakin bazekien ohitura ona zela karguaz jabetu eta zer edo zer argitaratzen hastea

Aski zehaztuta zuen egitasmoa zuzendariak hamar egunen buruan. Aurrekontua, horrenbeste. Maketazioa udalak berak sortua zuen Diseinu Ikastegiko ikasleek egingo zuten, irakasleen ardurapean. Hitzeginda zegoen. Sosik ere ez, hortaz. Informazioa bildu eta moldatzeaz sailekoak arduratuko ziren. Sosik ere ez, beraz. Argazkiak-edo salbu. Eta gero, inprimatzea, horrenbeste; horrek igoko zuen gehien, baina aski tratu onean zeuden inprentarekin eta, tira. Tirada handi xamarra eginda, alea merkeago. Dohainekoa izango zenez, ongi hartuko zuen jendeak, eta ez ziren bide erdian geratuko: 30.000 edo, hasteko, ongi iruditzen bazitzaion. *Konforme*, onetsi zuen, *hurrengoetan akaso gehiago*.

Urte berriarekin bateratsu kaleratu zuten 0 zenbakia. Bere ustez egokiago zen lehenbiziko zenbakiari "1. zk." deitzea, baina, ilun xamarrak gertatu bazitzaizkion ere, amore emanarazi zioten zuzendariaren argudio korapilatsuek, menpekoak ere behar baitu bere partea —ez zuen berak esango "txakurraren partea", baino horrelako zerbait—, nolabaiteko mugimendu-askatasuna baduela sentitzeko. Apenas izan zuen denborarik gainetik begiradatxo bat botatzeko, aurkezpen-ekitaldia baino lehen. Gazteei informazioa zuzen-zuzenean helaraztea, bertatik bertakoa, eguneratua. Hori zuten helburu, aitortu zuen. Haien harrera ona eta partehartzea espero zutela, *bizitza luzea izan dezan argitalpen berriak*. Hasierako 0 zenbaki haren ondoren etorriko zela besterik, eta izango zela zer hobeturik. Era guztietako iradokizunak jasotzeko gertu zeudela. Ahalik eta hedapenik handiena lortu nahi zutela. Teknikari guztien lan saiatua eskertu beharra zeukala. Bereziki, ontzia portu onera eramateko erakutsitako lemazain-trebezia estimagarriagatik, aldamenean zuen zuzendaria. Etab.

Luncha izan zuten, halako ekitaldi batek agintzen zuenez. Gero, etxean, ez zuen besterik jateko gogorik izan bazkalorduan. Salara jo zuen, telebista aurreko lo-kuluska egiteko asmoz. Artean eskutan zuen ***Gazte Argi, 0 zk***. hartaz ohartu zen orduan. Hari begira jarri zen, telebistatik zetorkion zaratotsari kasurik egin gabe, uztari begiratzen dion nekazariaren begiekin. Gogoko izan zuen azalaren diseinua. Berak aukeratua izaki. Ondoren editorial gisako bat zetorren, berak izenpetua. Ez zen bere buruarekin gezurretan ibiliko: egia esan, zuzendariak idatzi zion, berak denborarik ez eta; irakurtzeko ere ez baitzuen denborarik izan. *Hortaz*, pentsatu zuen, *irakurri egin beharko dut zer idatzi dudan*. Eta orduantxe izan zuen ustekabea. Halogeno-lanpararen distira setatiak ez zion zer idatzi ote zuen irakurtzen uzten. Alde batera okertu orria, eta ezin. Bestera okertu, eta ezin. Argia moteldu, eta ezin. Leihora gerturatu, kanpoko argiarekin irakurtzeko, eta... ezin! Ez zegoen idatzi zuena irakurtzeko modurik. Ona bai, kalitatekoa, baina distiratsuegia izaki papera.

Biharamunean bertan hitzegin zuen zuzendariarekin. Hura ere jabetua zen "arazotxoaz". Beraz, berehala adostu ziren. Birziklatua erabiliko zuten hurrengoan. Papera, alegia. *Garestiagoa da*, bota zion, irribarrea ezpain-ertzean zuela, *baina ondo "saltzen" dira halakoz egindakoak*.

Dohainekoak badira behintzat, pentsatu zuen zuzendariak bere golkorako; eta zenbait pentsamendu hobe dela izkutuan gordetzea.

Imanol Zurutuza
Itzultzailea

Richard Bourhis:

"familia da euskara belaunaldi batetik bestera transmititzeko biderik behinena, eta, gainera, merkeena"

Richard Bourhis psikologiako katedraduna da Quebeceko Unibertsitatean. Soziolinguistikako ikerketa askotan esku hartu du, besteak beste, *Euskararen Jarraipena* inkestan (1991). Horretaz gain, aholkularia da Kanadako Hizkuntza Ofizialen Batzordean, Quebeceko Hizkuntza Frantsesaren Kontseiluan eta EAEko Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusian. Gaur egun, *Reversing Language Swif in the Basque Country* liburua idazten ari da.

Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa

A. Tabouret Keller eta J. Fishmanekin batera parte hartu zenuen Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak (HPIN) 1991ko otsailean egindako inkestan. Zer aipatuko zenuke inkesta horretan?

1991ko inkesta, oraindik orain argitaratua, Euskal Autonomi Elkartean (EAE), Nafarroan eta Iparraldean egin genuen. Hori oso garrantzitsua da, izan ere, bide ematen digu hizkuntz politika ezberdinak dituzten lurraldeak alderatzeko. Iparraldean, esaterako, erakunde ofizialek baztertu egiten dute euskara; Nafarroan, ezagun denez, ez dute hizkuntza hori behar bezala bultzatzen; eta, azkenik, EAEn, ahaleginak egiten ari dira euskara berreskuratzeko.

Beraz, hiru lurralde ditugu, hiru hizkuntz politika ezberdin, eta, 1991ko inkestari esker, hiru egoera horiek konparatu daitezke. Era berean, inkesta tresna baliagarria da gerorako aldaketak ikusi eta neurtzeko. Horretarako, badirudi beste inkesta bat egingo dugula 1996an.

Erkatzerik al dago inkesta hori eta 1986ko mapa soziolinguistikoa?

Ez, horixe. Mapa soziolinguistikoa EAEri dagokio bakarrik, eta 1991ko inkesta, berriz, aipatutako hiru lurraldeotan egin genuen; gainera, oraingo inkestak ebaluaketarako bide modernoagoak ditu. Egia esan, mapa erroldaren araberako ikerketa baino ez da. Aurrerantzean, aldiz, alderatu ahalko dira oraingo inkestan jasotako datuak eta geroan bildutakoak.

Zer deritzozu Euskal Herriko egoera soziolinguistikoari?

Lehenik eta behin azpimarratu nahi dut lurralde bakoitza besteak ez bezalakoa dela: hiru errealitate ditugu. EAEk beste biek baino hobeto zaintzen du euskara: umeek eskolan ikas dezakete, euskara administrazioan sartzen ari da poliki-poliki... EAE lurralderik egokiena da hizkuntzaren berreskurapena bideratzeko; eta, horretan, Iparraldearen eta Nafarroaren eredu izan behar du. Nolabait esateko, EAE euskararen hauspoa da une honetan.

Iparraldean badirudi egoerak hobera egin duela azken aldian. Orain urte bete, esate baterako, hitzarmen bat sinatu zuten Frantziako Gobernuak eta ikastolek irakasleen soldatak ordaintzeko; Akitaniaren eta HPINen arteko hitzarmenik ere izan da... baina ekintza horiek ez daude politika orokor baten baitan: unean unekoak baino ez dira.

Jakin badakite euskaraz iparraldean; egin, berriz, gero eta gutxiago egiten da. Bitartean, Pariseko Gobernuak laguntzeko prest dagoela aldarrikatzen du, baina laguntza hori barregarria da. Bestalde, Nafarroako egoerak, legeari eta egoera soziolinguistikoari begira, ez du zerikusik Iparraldean eta EAEn gertatzen denarekin. Ez aurrera ez atzera dabiltza Nafarroan.

EAEn, Iparraldean eta Nafarroan euskararen lege bera edo antzekoa izango bagenu, askoz errazagoa litzateke hizkuntz normalkuntza...

Bai, hala da. Pirinioetako bi aldeetako euskaldunek aspaldian estatu bat sortu ahal izan balute, hizkuntz normalkuntza askoz errazagoa litzateke gaur egun, bai. Baina hori ez da gaurko errealitatea. Hiru lurraldeetako hizkuntz politikak zeharo ezberdinak dira; hortaz, egoera horretara egokitu behar du bere burua jendeak, eta, nola edo hala, aurrera egin. Aurrera egite hori, batez ere, EAEn iruditzen zait garrantzitsua. Bertako euskaldunek hauspo-lanak egin behar dituzte eta indartu euskararen sua. Neurri handi batean, EAEkoek lagundu egin behar diete nafarrei eta iparraldekoei hizkuntzari eusten.

Dena den, erraza da horrela hitz egiten, eta zaila, ordea, elkarlanean aritzen. Jakina denez, hainbat oztopo dago elkarrekin iharduteko. Eragozpen horietako bat hizkuntza bera da; esaterako, zuberotar asko beldur dira euskara batuak ez ote duen hango euskalkia suntsituko. Hori bera Bizkaian gertatu zen aspaldi, eta dialekto ugariko hizkuntzetan beste horrenbeste gertatu ohi da. Normaltzat jo behar ditugu, beraz, beldur eta aurriritzi horiek.

Euskal Herria eta Kanada

Quebeceko eta Euskal Herriko egoera soziolinguistikoak sakon ezagutzen dituzu. Ba al du zerikusirik batak bestearekin?

> Euskaldunek hauspo-lanak egin behar dituzte eta indartu euskararen sua

Egia esan, ez: ez dute antzik elkarren artean. Quebecen, frantsesdunen %70 inguru elebakarra da. Hori ez da Euskal Herrian gertatzen. Nafarroako, Iparraldeko eta EAEko euskaldun gehienak elebidunak dira. Hori horrela, Quebec ez da tokirik egokiena konparaziorik egiteko, izan ere, Euskal Herrian ez bezala, han herritar gehienen interesak asetzen dituzten hizkuntz politikak gauzatu daitezke. EAEko herritarren %70 euskalduna balitz, egoera oso bestelakoa izango litzateke, jakina. Egoera txar horri konstituzioetan jasotakoa gehitu behar zaio. Alegia, Espainiakoan espainiar guztiek gaztelaniaz jakin behar dutela ezartzen da, eta Frantziakoa... hobe ez aipatu.

Alderatzekotan, Kanadako New Brunswick bakarrik alderatu daiteke Euskal Herriko egoera soziolinguistikoarekin. Lurralde hartan, hirutik bi ingelesdunak dira, eta bat (akadiarrak), berriz, frantsesduna. Legeak hizkuntza biak onartzen ditu lurraldean. Ingelesdunen %90 elebakarra da, eta, hortaz, frantsesdunek gutxiengoa osatzen dute. Ontarion ere horrelako zerbait gertatzen da. Ingelesek ez dute frantsesa nahi, eta frantsesdunak elebitasunari eusten saiatzen dira gogotik. Hori gutxi balitz, hango parlamentuko gehienak ez dira frantsesaren aldekoak: eztabaidak, tira-birak eta sesioak ugariak baino ugariagoak izaten dira.

Ikasi al dugu ezer euskaldunok Kanadako esperientziatik?

Bai, nik uste dut baietz, izan ere, HPINek ura edan du Hizkuntza Ofizialen Batzordearen iturritik. HPINekoak Ottawara joan ziren, legeak aztertu zituzten, eta baita gerora horrelako hainbat neurri hemen ezarri ere. Mari Karmen Garmendiak eta beste funtzionario batzuek bertatik bertara ikusi zuten Kanadako Gobernuak egiten zuena ingelesa eta frantsesa parekatzeko, eta, ondoren, hainbat gauza handik hartu, eta hemen ezarri zituzten.

Hori guztia, nire ustez, funtsezkoa izan da hemengo legea zehazteko, administrazioa euskalduntzen hasteko eta beste hainbat gauzatarako. Horretaz gain, Kanadako esperientzia lagungarria izan da han egindako okerrak hemen berriro ez egiteko. Nolanahi ere, HPIN ez da bakarrik Kanadan egon; aitzitik, beste zenbait herritan ere izan da, eta, gaur egun, soziolinguistikan, euskaldunok baduzue mundu osoan gertatzen denaren berri.

Hizkuntza berreskuratzea

Nolako lana egiten ari da, zure ustez, EAEko administrazioa euskara berreskuratzeko. Batzuek gehiegizkoa dela salatzen dute, beste batzuek ez dela nahiko...

Nire ustez, HPIN lan bikaina ari da egiten, zeren eta, EAEko egoera soziopolitikoa kontuan izanik, ondo asko jakin baitu ahalik eta adostasunik gehien lortzen. Dena dela, hizkuntza bat berreskuratzeko legeak eta neurriak proposatzen diren guztietan sortzen dira arazoak. Beti izaten dira herritarrak eta alderdi politikoak lege eta neurri horien aurka.

Kanadan gauza bera gertatzen da. Adibidez, Quebecen, Ontarion eta New Brunswicken jende asko dago Gobernuak ingelesa eta frantsesa berdintzeko ezartzen dituen neurrien kontra. Batzuek esaten dute Gobernuak ezer gutxi egiten duela frantsesaren alde; eta beste batzuek, aldiz, gehiegi egiten duela. Hizkuntza Ofizialen Batzordeak bere burua defenditu behar du urtero, bai frantsesdunen aurrean, bai ingelesdunen aurrean. Hona beraz, gakoa: ahalik eta jende gehien erakarri hizkuntz normalkuntzara. Edonola ere, beti izango da aurre egiten duenik; horixe bera gertatzen baita hainbat politika publikotan: osasuna, ingurugiroa...

Diru eta baliabide gehiago eman behar al du administrazioak euskararen normalkuntza lortzeko?

Zaila da horri erantzuten. EAEko langabetuen kopurua %22 ingurukoa da... Erantzuna herritarren esku dago edozein kasutan. Euskara euskal nortasunaren funtsezko ezaugarritzat jotzen badugu, orduan baietz esango nuke. Euskarari lehentasuna ematen badiozue, Quebecen adina baliabide erabili beharko zenukete.

Onuragarria al da administrazioaren eta herri-erakundeen arteko elkarlana?

Bai, zalantzarik ez. Zenbat eta elkarte gehiago egon euskararen alde, zenbat eta elkarte gehiagok euskaraz egin, orduan eta mesedegarriago euskararentzat. Azken batean, hizkuntza berreskuratzeko, goitik beherantz eta behetik gorantz lan egin beharra dago: administrazioak eta herri-erakundeek elkarri lagundu egin behar diote.

Are gehiago, elkarte eta talde horiek kritikoak izan behar dute administrazioarekin. Horrela, hizkuntzaren auziak bizirik irauten du, jendeak ez du ahazten eta ideia berriak sortzen dira.

Euskararen normalkuntzari begira, zeri eman behar diogu lehentasuna? Familiari? Administrazioari? Beste zerbaiti?

J. Fishmanen iritziz, familia funtsezkoa da hizkuntza babesteko eta berreskuratu ahal izateko. Familian, lagunartean edo esparru txikietan hizkuntzaren erabilerak porrot egiten badu, alferrekoak dira beste mailetan egindako guztiak. Horrenbestez, zaindu egin behar dugu transmisio katearen lehen maila hori, azken finean, familia baita euskara belaunaldi batetik bestera transmititzeko biderik behinena, eta, gainera, merkeena.

> Pirinioetako bi aldeetako euskaldunek aspaldian estatu bat sortu ahal izan balute, hizkuntz normalkuntza askoz errazagoa litzateke gaur egun

Oso garrantzitsua da ziurtatzea transmisio hori EAEko, Iparraldeko eta Nafarroako eskualde euskaldunetan. Horretarako, gobernuek neurriak hartu behar dituzte; baina ez familiaren esparruan bakarrik, baizik eta hezkuntzan, komunikabideetan, administrazioan, eta, oro har, euskarari arnasa ematen dioten alorretan. Dena den, baliabideak urriak direnez, geure buruari galdetu behar diogu non aterako dugun etekinik gehien, eta nola bideratu behar ditugun dirulaguntzak.

Saihestu behar al ditugu hizkuntzaren inguruko eztabaidak eta liskarrak?

Normalean, eztabaidak eta istiluak hizkuntza minorizatuaren kaltetan izaten dira beti. Hala ere, istiluak saihestearren, ezin da beti amorerik eman. Hori ere txarra izan daiteke bai hizkuntzarentzat, bai hiztunentzat. Edonola ere, nik ezin dut esan zer egin behar den. Hori norberak erabaki behar du une jakin bakoitzean.

L. Egia
Kazetaria

Escola Galega de Administración Pública (EGAP) eta galizieraren normalkuntza Galiziako autonomi administrazioan

EGAPen eginkizuna normalkuntzako lanetan

EGAPek hizkuntzaren normalkuntzan duen zeregina autonomi elkarteko bi lege hauetan jasotzen da:

— Hizkuntza-normalkuntzari buruzko ekainaren 15eko 3/1983 Legean. Lege honen 24.1 atalaren arabera, honako eginkizuna dagokio EGAPi:

> "EGAPek funtzionarioen hizkuntza-prestakuntza du bere gain; funtzionarioak, horrela, galiziera erabiltzeko gauza izango dira, lege honetan ezarritako moduan".

— EGAP sortzeari buruzko maiatzaren 27ko 4/1987 Legean (uztailaren 10eko 10/1989 Legeak aldatua). Legea aldatu ondoren, 3.1 i atalaren arabera, honako eginkizuna dagokio EGAPi:

> "Galiziera zabaldu eta normaltzea administrazio publikoan; langileen hizkuntza-gaitasunaren ardura izatea; galizieraren hizkera teknikoa, administratiboa eta juridikoa finkatzeko lanetan parte hartzea".

EGAPek 1990. urtetik gaur arte hizkuntza-normalkuntzaren eremuan egindako ekintzak aipatuko ditugu ondorengo lerroetan.

Galiziera bultzatzeko ekintzak

Egindako ekintzak honela sailka daitezke:

— Barne-antolaketarako ekintzak.
— Prestakuntzako ekintzak.
— Ikerketak bultzatzeko ekintzak.
— Argitalpenak sustatzeko ekintzak.
— Bestelakoak.

Gure liburu eta aldizkari ia gehienak galizieraz argitaratzen dira eta eragin handia dute administrazioko hizkeraren arloan

• Barne-antolaketarako ekintzak

Esan beharrekoa da EGAPek, bere egitura orokorraren barruan, administrazio-unitate berezi bat duela hizkuntza-gaietarako. Unitate hori atal-mailakoa da (Administrazioko Hizkeraren Atala) eta, bertan, hizkuntza-iharduerekin zerikusia duten gaiak bideratzen dira.

• Galiziera ikasten hasteko ikastaroak eta hobekuntzakoak, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiarekin batera antolatutakoak

EGAPek, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiarekin batera, ikastaroak antolatzen ditu urtero, oinarrizko eta erdiko mailetako prestakuntza-beharrak asebetetzeko.

• Administrazioko hizkeran trebatzeko ikastaroak, toki-administrazioko langileentzat

*Escola*k beste sail batzuekin batera antolatzen du administrazioko hizkera lantzeko programa: Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiarekin (Hezkuntza eta Unibertsitate Saila), eta Justizi eta Barne Arazoetarako Zuzendaritza Nagusiarekin (Justizi, Barne Arazo eta Lan Harremanen Saila). Programa hori oinarrizko eta erdiko mailetan banatuta dago. Trebakuntzako hirugarren mailaren ardura, berriz, bere gain du EGAPek.

• Administrazioko hizkerari buruzko ikastaroak, Galiziako Xuntako langileentzat

EGAPek antolatutako ikastaroetan aipatzekoak dira administrazioko hizkeraren gainekoak, geroan zabalduz joango direnak.

• Mintegiak

EGAPek zenbait mintegi ere antolatzen ditu. Mintegi horien helburua, hitz gutxitan esanda, administrazioko hizkerako eta lege-hizkerako adituak gehien kezkatzen dituzten gaiak hausnartzea da.

• Administrazioko hizkerari buruzko bekak

Legean ezartzen denez, EGAPek parte hartu behar du administrazioko hizkera finkatzeko lanetan. Hori dela eta, *Escola*k ikerketa-beketarako deiak egiten ditu urtero-urtero filologia galiziarraren lizentziatuentzat.

• Galizierazko argitalpenak

Argitaratze-lanei dagokienez, adierazi behar dugu gure liburu eta aldizkari ia gehienak galizieraz argitaratzen direla. Argitalpen horietako batzuen edukiek eragin handia izan dute, eta oraindik ere badute, administrazioko hizkeraren arloan. Hona argitalpen horiek:

— *Manual del lenguaje administrativo*. EGAPeko irakasle diren García Cancela jauna eta Díaz Abraira jauna dira egileak. Liburu honek dagoeneko bigarren argitaraldia du eta duela gutxi berriz inprimatu da.

— *El lenguaje del poder. "Conferencias y Documentos"* izeneko bildumaren 2. zenbakia da. Egilea: González Navarro irakaslea.

— *Boletín de Administración y Lengua*. 1994. urtetik aurrera, sei hilean behin kaleratzen dugu. Administrazio publikoekin zerikusia duten hizkuntza-gaien berri ematen du.

• Galiziera goresteko ihardunaldiak

EGAPek urtero parte hartzen du gure literaturako idazleren baten bizitza, lana, e.a. goraipatzeko ihardueretan. Iharduera horiek Galiziako Gobernuak antolatzen ditu Galizieraren Errege Akademiarekin batera.

Manuel Braña
EGAPeko Azterlan, Ikerketa eta Argitalpen Zerbitzuko arduraduna



Liburuak
Liburuak
Liburuak
Liburuak

Udako oporrek aukera paregabea ematen digute gure eguneroko nekeak eta lanak alde batera uzteko eta munduko atsegin guztiez gozatzeko. Eta, askorentzat, atsegin horietan atseginena irakurtzea denez, hona zer gomendatzen diguten euskal idazle batzuek kostaldean zein lehorrean ondo patxadan irakurtzeko. On egin.

Jon Alonso

Zenbait argitaletxek ateratzen ditu, egun, gazteleraz eta euskaraz, "poltsiko-liburuak". Edizio merkeak eta txukunak, non batek denetariko autoreak, gaiak eta garaiak kausitzen dituen. Nik dozenerdi bat hartuko nuke, zeintzu diren gehiegi begiratu gabe, eta motxilan sartu; oporraldiak ustekabea eta ez ohikoa bilatzen badu, literaturatik ere ekin diezaiogun. Ez dute apenas tokirik hartzen, ez dute pisurik, ia, eta liburudendatik atera orduko badakite tren geltoki urrutiko batean ahaztuak izateko jaioak direla.

Etxetik mugitzen ez den irakurle porrokatuari, irakurketa luze eta mamitsuekin "engaiatzea" maite duenari —ba al da alerik, oraindik?—, aldiz, nazioarteko literatur lan pisuzko baten euskal itzulpena irakurtzeko esango nioke. Céliren *Gauaren azken muturrerainoko bidaia* (Igela argitaletxea, Iruñea), esate batera.

Koldo Biguri

Datozen oporrei begira jarrita gauden honetan, gure ametsetan eta topikoan (ez, ordea, tropikoan) bakarrik aurkitzen den irla horretara norekin eta zein liburu hartuta joango ginatekeen erabaki behar omen dugu. Norekin joan ez dizuet esango, baina liburu kontutan izugarrizko bat gomendatuko nizueke... izugarrizkoa, banpiroei edo ustezko banpiro bati buruzkoa delako : *Eta banpiro bihurtu nintzen* (Descleè de Brouwer argit.), Andreu Martin idazle bartzelonarrarena eta Lurdes Auzmendik euskaratua.

Benetan, izua ez dakit, baina barrez hesteak botatzeko modukoa bada, izan ere, istorio honetan, Transilvaniako mutil batek banpiro bihurtu dela uste du, baina beldurra ematen dio hilkutxan lo egin beharrak, eta nazka odola xurgatu behar izateak. Ziurtatzen dizuet zuen irla huts horretan irri-karkarak behintzat entzungo direla, eta, bada-ezpada, lagunarekin batera irakurri, bestela bakarrik geratuko zarete, liburuko azken lerrora arte ez duzulako eskuetatik kenduko.

Tere Irastorza

Karen Blixen, ezizenez Isak Denisen, bere ipuin eta bizitzako pasadizoak filmatu ondoren egin da ezagunago gure barrutiotan. *Afrikako oroitzapenak*, *Babetten oturuntza*... dira bere hitzak iruditan bilduta eskaini dizkiguten filme batzuk. Gure artean Joseba Sarrionaindia jotzen dut ipuinak egituratzeko eta gertaera xumeenen isladak ur-uhinen gisara hedatzerakoan Karen Blixenekin lerra daitekeen idazle bakarra.

Bere libururik gomendatzerakoan zein hoberik aurkitzea zaila baita, inondik, argitara eman duen azkena aipatuko dut: *Afrikako gutunak* (*Lettres d'Afrique* -Gallimard, 1985-, *Cartas de Africa* -Alfaguara, 1993-), 1914-1931 bitartean tartekoei bidalitako gutun bilduma. Hauetan *Afrikako oroitzapenak* hartan agertzen diren gertaera askoren oinarriak aurki daitezke, eta haietan ez bezala, memoriaren eta literatur estiloaren galbahetik iragazi gabeak.

Oro har, bere bizitzaren kronika bere ipuin liburu zoragarri baten izenburuaren filosofian labur daiteke: *Patuaren pasadizoak* (Elkar). Patuaren pasadizo baino ez dira bizimoduko gertakariak oro.

Joxerra Garzia

Liburu irakurterrazak gomendatu ohi dira udarako. Horra nik sekula ulertu izan ez dudan gauza (gauzetako bat). Ez al dugu, bada, udan beste inoiz baino asti gehiago izaten? Ez al gaude beste egin- eta irakurri beharrekoetatik libreago? Uste jenerala omen den horren kontra, beraz, irakurterraza ez den liburua gomendatu nahi nuke.

William Shakespeareren Soneto hautatuak, Juan Garziak itzul-antolatuak, Alberdania argitaletxeak argitara emana. Hona hemen, besteren zer esangoak baztertu, eta anaiarena aipatzera bultzatu nauten arrazoiak, labur-labur:

— William bera, gaurkotasun harrigarriz ageri zaigu.
— Ingelesez barik euskaraz idatzi izan balitu, Juanek idatzi dituen bezalaxe idatziko zituzkeen Williamek.
— Bere buruari arau estuak jarri dizkio Juanek, eta ezin dotoreago azaldu ditu liburuaren hitzaurre harrigarrian. Besteak beste, aditz trinkoen begiratu metafisikoa aipatuko nuke nik, zer bakar bat aipatzekotan.
— Baliapide horiez gainera, literaturarako sen ikaragarria darakuskigu Juanek. Lehen irakurketatik bertatik (goratik egitea gomendatuko nuke nik) literaturtasunaren plazerra dastarazten digularik sonetoon bidez.

Horra, beraz, gomendioa. Eta badaezpada ere, ohar bat: liburuaren giroan errazago da sartzen, behin sartuz gero irteten baino. Abisatzen duena ez omen da traidore. Agur eta goraintziak.

Jon Kortazar

Ez dakit eguneroko bizitzan hego alderik dagoen. Ezetz diote. Hego aldea beti dago oporretan... eta liburuetan. Udarako zer irakurri? Bruce Chatwin-en edozein nobela. Nobela edo erreportaia edo bidaia liburua:
Bruce Chatwin-ek beti adieraziko du hego aldea, beste aldea. Idazle berezia da Bruce Chatwin. XIX. mendeko Englandeko idazle bidaiariaren kastakoa. Eguneroko bizitzaren beste aldean dagoena agertzen dakiena.

Colina negra ez da, ziurrenik, bere lanik preziatuena. Baina anaia bizkien istorio honek zantzu bereziak dakartza ene gogora. Chatwin orain urte batzuk hil zen. IHESak jota diote. Ez dakit, baina miresten dut infernuaren garretan ere hego aldea aurkitu duen idazlea. Hego aldea, beste aldea.

Anjel Lertxundi

Hona hemen nire gomendioa: Karlos Linazasororen *Zer gerta ere* (Alberdania argitaletxea). Nire gomendioaren arrazoia: azken bolada honetan euskaraz argitaratu den libururik pertsonalenetakoa delako. Tamalez, ahanzduraren salara kondenatu du kritikarien isiltasunak. Oporrak opor, uda ere sasoi ona da bidegabekeriei kontra egiteko.

Juan Garzia

Udako literatur bidaia aukerako batzuk:

Joan den mendera eta Ingalaterrara. Pasioa eta posesioa, detektibe nobelen eta foiletinen ukituarekin. Egun bakarrean irensteko moduko bostehun eta piku orrialde: *Posesión*, A. S. Byatt, Anagrama.

Milanetik Triestera trenez, zahardadea zer datekeen ikasiz. Labur eta merke: *Corto viaje sentimental* (beste istorio batzuez lagundua), I. Svevo, Alianza.

Gaztelerazko itzulpenak dira biak (onak, gainera, erdaraz ere bada-eta bestelakorik), bai baitakit euskarazkoetan zuek, lanarengatik nahiz laneko zurruntasunetik ihes egiteagatik, egunero-egunero bidaiatzen duzuela, nik propaganda egin beharrik gabe: Literatura Unibertsala, Pentsamendu Unibertsaleko Klasikoak...

Jatorrizkoetan, berriz, bidaiez ari garela, absurdoaren labirintuetara abia zaitezkete, letraz haragoko arriskurik gabe; kontuz, baina (kafkategietan ohituak egonagatik), aireportuetako itxaron-gelak berak ere bidaia horren parte baitira: *Zer gerta ere*, K. Linazasoro, Alberdania.

Karlos Linazasoro

Sakabanatuta zeuden, eta bildu dituzte. Bi liburuki eder ezin mardulagotan. Bertan berrehundik gora ipuin aurkituko dituzu, irakurle udatiar, pago baten itzalera nahiz itsasbazter jendez lepo egindakoan irakurtzeko. Guztiak dira bikainak, nekez aurkituko duzu hoberik inon, eta inolaz.

Bizitza ordezkatzeko idatzitako ipuinak dira, bizitza asmatzeko. Gauza ttiki, egunerokoen poesian eta umorean murgilduko zara piszina honetara jauzi eginez gero, umeek eta eroek soilik arnasten duten askatasunera. Baina askatasuna (eta piszinak) ez da sekula ordainik gabea, arriskatzea eskatzen du.

Hala ipuin hauetan ere. Ezagutuko duzu basobarren honetan bizitzak ez duela aurpegi inuzenterik, bizi izan zenuen hura ametsa besterik ez zela, edo amets hura bizi. Oro dela jolas eta joko, oro doala mugaz haraindi, oro dela hil-biziko arrisku. Har itzazu, beraz, aurretiko neurriak eta kixkal itzazu begiak Julio Cortázar-en ipuin oso berdingabe hauetan.

Gerardo Markuleta

Idatzi gabeko arau batek dio sargori eta olgeta garairako irakurgaiak arina eta konplikazio askorik gabea behar duela. Eta ez dut nik kontrakorik esango, baina sarri arintasuna eta konplikaziorik eza beste zerbaitekin nahasi ohi da, eta azkenean batek best-seller gustagarri baina barren-huts horietako bat sartzen du bidai poltsan.

Aldizkari honetako irakurleentzat liburu baten gomendioa egiteko enkargua jaso eta, beste zenbaiten artean agertuko zela jakinda, aukera asko eta askori mila jira eta buelta eman eta gero, harribitxi aldiberean urrezko eta apal hauxe gogoraraztea erabaki nuen: *Euskararen auziaz*, Luis Villasante, "Luis Elizalde"saila, Arantzazu 1988.

Urte dexente joan da liburua kaleratu zenetik, baina beraren dohain guztiek bere horretan diraute. Informazio ugari, dibulgazio mailako jardun bizia, euskara aberats--dotorea, eta batez ere, zentzuna euskararen inguruko kontu guztien gainera ekarria.

"Euskaldun bat, filologo erdi" aspaldian esanak ez gaitu libratzen gure eta beste hizkuntzen inguruko astakeria nabarmenak komeni baino maizago entzun eta irakurtzetik.

Luis Villasantek lan eskergarria hartu zuen guzti horiei aurre egiteko txerto moduko hau osatzen, jakituriak isuritako datu eta argudio franko erabiliz, ezertxo ere jakintzat eman gabe eta, beharrezko ikusten zuenean, azalpenak taberna-mailara apaltzeko batere beldurrik gabe.

Purismoa, noiz-nolakokeria, maileguak, elebitasuna, normalizazioa, batua eta euskalkiak..., gai guztion inguruko azpildura eztabaidagarri, istilutsu eta polemikoak lotsarik gabe agertzen eta argitzen dizkigu liburuak. Hertsikeria eta mozkeriaren kontrako botika segurua, arin eta konplikaziorik gabea: eguzki galdatan izanik ere, onik baino ezin dizu egin.

Gary Errepublikari laguntzera etorrita, behin galduko gaiztoen kontra eta gure kalterako galdu behar. Ez dut gogoratzen pelikula nork zuzendu zuen, gehienetan bezala liburua askoz gehiago gustatu zitzaidan.

Por quién doblan las campanas Ernest Hemingway-k idatzi zuen.

Patxi Zubizarreta

Haur denboran, larunbat arratsetan, Etxezarreta zinemara joaten ginen. Artean adin ttikikoak izan eta filmeak hemezortzi urtetik gorakoentzat ziren arren, jeneralean sartzea lortu eta misterioz, tentsioz eta jakinminez beteriko filmeak ikusten genituen. Eta filmeak ikusi bitartean gizon sentitzen baginen ere, gero, etxera itzuli eta eskaileretara bakarrik ailegatzean, atzera umetu eta beldurrak aidean eta tximistaren pare igotzen ginen.

Ikusle goiztiar izandako garai hartatik, oroimenean iltzaturik, *Papillon* filmea geratu zitzaidan. Beranduago, antzeko zilarra sentitu izan dut zenbait libururekin, eta, ahantzezina zaidalako Paul Auster idazle iparramerikarraren *La música del azar* (Anagrama) aipatuko nuke, nobela honek ere ezin egokiago nahasten baititu misterio, tentsio eta jakinmin osagaiak. Eta nobela oso batek sortarazi zidan sentipen bertsua, Fiedrich Dürrenmatt idazle suitzarren ipuin bakar batek sortu zidan gerora, *Matxura* ipuin laburrak alegia (Bartleby saila, Erein).

Joxean Sagastizabal

Errez gogoratzen ditut gehien astindu nauten liburuak: *Sinuhé el egipcio*, *Azteka*, *La insoportable levedad del ser*... eta beste batzuk, eta beste batzuk horien artean bat aukeratuko dizuet, oso liburu ezaguna, baina liburu ezagun asko ezezagunak zaizkigunez (askotan izenburua mila aldiz adituta irakurri ere egin dugula iruditzen zaigu) ausartuko naiz.

Ikusi berria dut Ken Loach-en *Tierra y libertad*, pelikula ederra. Gerra zibilean gertatzen denez, harekiko hautsak horrotu zizkidan, hautsetan begiratzen hasi eta Gary Cooper eta Ingrid Bergman. Ingrid hogei bat urtekoa, ile motz-motza, irripar zorragarriarekin galdezka gizonari ea musua nola ematen den, ea sudurrarekin zer pasatzen den.

Imanol Zurutuza

Inork gomendatutako liburuak eta salduenen zerrendetakoak ez irakurtzeko joera nire baitan aski errotua dagoen arren, bihoakizue nire gomendioa, zerrendaburu bat ere tarteko dela. Lehenik eta behin, tituluak zerbait astun eta aspergarri iradokitzen zidalako duela gutxi arte irakurri gabe nuen liburu arin eta atsegin bat, Mario Vargas Llosaren *Pantaleón y las visitadoras*. Ondoren ezezagunago bat, *Boile de Suif*, Guy de Maupassantena, harribitxi txiki bat. Oraindik irakurri ez duenari, berriz, ezagun--ezagun bat gomendatuko diot, belardi batean etzanda irakurtzeko modukoa, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel*, Josean Sagastizabalena. Azkenik, oporretan aspertu egiten direnei, Marcel Prousten *À la recherche du temps perdu*.

Euskaltzaindiaren gomendio-erabakiak (III)

Hitz elkartuen atal honetan lotuta, marra eta guzti edo bereiztuta idazteko aukera garrantzitsuenak ikusiko ditugu; baina horrek ez du esan nahi beti hitz elkartuaren aukerari heldu behar diogunik, askotan eraikuntza sintaktiko libreen bidea (*...ren* + izena, *...ko* + izena, e.a.) ere hor izango dugulako.

Hitz elkartuen idazkera dela eta

Hasteko, hitzaren bukaerako "a" galdu/ez galdu nahasketa dela eta, hauxe proposatu du Euskaltzaindiak:

• Lehen osagaiak "ia" itsatsia duenean, "a"rik gabe edo "a" eta guzti idazteko aukera egongo da, baina "a" kentzea hobetsi da. Beraz, *biologi azterketa, pedagogi berrikuntza, ortografi arauak* eta *autonomi elkartea* dugu aukerarik egokiena, *biologia(-)azterketa, pedagogia(-)berrikuntza, ortografia(-)arauak* eta *autonomia(-)elkartea* idaztea ukatzen ez bada ere.

• *Eliza, burdina, hizkuntza, kultura, natura* eta *literatura* hitzei, baina horiei bakarrik, bukaerako "a" kentzea dago; gainontzeko hitzetan ezin da halakorik egin. Ondorioz, hitz horiek "a" eta guzti edo "a"rik gabe idatziko dira: *eliz zerga/eliza(-)zerga, burdin fabrika/burdina(-)fabrika, kultur emankizuna/kultura(-)emankizuna...*

• "a" kentzen bada, ez erabili marrarik eta bigarrena erdi atzizkia edo bada, biak lotu (*burdingintza, kulturgintza* eta antzeko kasuetan).

• Gainontzeko elkarte berrietan ezin izango da lehen osagaiaren amaierako "a" kendu: *iraultza-giroa, hezkuntza-alorra, finantza-egitura, medikuntza-fakultatea*, e.a.

Berrelkarketa

Hitz bi baino gehiagoko elkarteak ez dira komeni. Beste moduren baten bidez adieraziko da: **udal-kirol-patronatua=udalaren kirol-patronatua*, gehienetan izango baitugu antzeko aukeraren bat.

Dena den, *euskal, erdal, frantses*,... eta antzeko mugatzaileekin, onargarriagoak gertatzen dira: *euskal musika-taldea, erdal joskera-moldea, frantses lege-araudia...*

Bereiz idazteko hitz elkartuak

Hemen jasotzen diren adibideetan salbuespen batzuk ere badira, baina horien berri jakiteko, "Hitz elkartuen osaera eta idazkera"ri buruzko txosteneko AAAra (atalez ataleko azalpenetara) jo beharko da.

• *Egin, eragin, eman* eta *hartu*rekin osatutako hitzak: *lo egin, negar egin, barre eragin, leher eragin, beldur eman, hitz eman, kontu eman, kargu hartu, parte hartu, kontu hartu...*

• *Etxez etxe* erakoak (lehen osagaia deklinatuta): *aurrez aurre, gizaldiz gizaldi, herriz herri, sasiz sasi...*

• *Egin berri* modukoak: *amaitu berri, hasi berri...*

• *Mahai gainean, etxe aurretik* gisako posposizioak: *esku artean, aste barruan, eskualde mailako zerbitzua, kable bidez, ikastetxe mailan...*

• *Bila, eske, falta* osagaiekin: *ur bila, diru eske, lo falta...*

• Lehen osagaia *euskal, erdal, giza, itsas* bada: *giza zientziak, itsas garraioa, erdal idazleak, euskal hitzak...*

Marrarekin idaztekoak

• Bikoiztapen indargarriak: *gorri-gorria, garbi-garbia, alfer-alferrik, asper-asper eginda, gazte-gazterik, arin-arina, goxo-goxoa, luze-luzea, azken-azkenean, bihotz-bihotzetik...*

• Atzizki bereko errepikapenak: *apurka-apurka, polito-polito, aldian-aldian, egunero-egunero...*

• *Seme-alabak* erakoak: *zuri-gorri, joan-etorri, han-hemen, maisu-maistrak, zeru-lurrak...*

• *Plisti-plasta, zehatz-mehatz* erakoak: *kili-kolo, zirti-zarta, di-da, tarteka-marteka, mara-mara, nahas-mahas...*

• Leku-izen elkartuak: *Abanto-Zierbena, Lasarte-Oria, Iruraitz-Gauna, Ürrüxtoi-Larrabile...*

Marrarekin edo bereiztuta idatzi beharrekoak

Hiztunek edo idazleek unean-unean eratzen dituzten hitz-elkarte berriak sartzen dira hemen: *lan-hitzarmen* edo *lan hitzarmen, merkatari-mundu* edo *merkatari mundu, arazo-iturri* edo *arazo iturri, sakontze-ikastaro* edo *sakontze ikastaro*,...

Bigarren osagaia aditz-izenkia dutenak datoz hurrengo: *harri-jasotzaile* edo *harri jasotzaile, eguraldi-iragarle* edo *eguraldi iragarle, euri-neurgailu* edo *euri neurgailu, orri-zulagailu* edo *orri zulagailu, diru-bilketa* edo *diru bilketa, adimen-azterketa* edo *adimen azterketa.*

Oharra: Osagai biak hitz larriz hasten direnean hobe da hitz elkartua marrarik gabe idaztea: *Medikuntza Fakultatea, Bertsolari Txapelketa, Foru Aldundia, Garraio Zuzendaritza* e.a.

Joseba Urkia
IZOko itzultzailea

Amets, beti amets

Kafesnean goilaratxoa birarazten hasi da funtzionarioa, oharkabean ia, begirada bere eskuaren mugimendu hipnotikoan harrapaturik duela; zortzi minutuko oasia geratzen zaio edari beroa ahogozatzeko, fitxa ordulari kupidagabearen zirrikituan sartu eta lanaren eguneroko basamortuan barnatu aurretik. Automata baten mugimendu behin eta berriro errepikatuekin zabaldu du egunkaria, eta lehengo begi hipnotizatuek albisteen lerroak aletzeari ekin diote, kikara ezpainetaratzen duen bitartean. Kafetegian, Tracy Chapmanen kantu barea entzuten da, *Dreaming on a world*, baino inork ez dio erreparatzen, edo inork ez du ulertzen bere mezua, hizkuntza arrotzak kaltegabe bihurtua, *We must always keep dreaming of a world with equality and justice*. Eta egunkariaren paperezko leihotik begiratzen dioten umetxo beltz batzuek, infernuaren aho labanean, errukiaren antzeko sentsazio iheskorra eragin diote, segundu laurden batez.

Basamortua zena paradisu bihur daiteke, hogei segundutan erabaki egokia hartzeko ausardia biltzen asmatzen badu funtzionarioak

Bat-batean, ordea, hautsi da egunerokotasuna, ahots ozenegi batzuen erruz; neska-mutil pare bat, musuzapiz sudurpea estalita dutela, oihuka hasi dira goizeko bezero lasaien arreta erakartzen. *Ametsak ere lapurtu dizkigute agintariek*, entzun die, ernegaturik, bere zortzi minutuko bakealdia triskatu diotelako. *Osagai kimikoen bidez, gure janaria eta gure airea kutsatuz, amets egiteko gaitasuna kendu nahi digute*, jarraitzen du neskak, mitin batean bailegoen. *Noizdanik ez duzue ametsik gogoratzen? Badakizue zergatik?*, ahots polita du, baina urduri dago, *munduko gobernu guztiak ados jarri direlako jendeak ametsik egin ez dezan, arriskutsua delako haientzat!*

Egia da! Noizdanik ez duzu gogoratzen ametsik?, galdetzen dio funtzionarioak bere buruari. Baina ez, ezinezkoa da! *Haiei komeni zaizkien ametsak baino ezin ditugu egin*. Kafesne hondarra hozten den bitartean, saiatu da funtzionarioa ametsen bat egiten, debekatua izan daitekeen amets bat, kafetegiko beste izkinean egon ohi den emakume eder eta ezkondua etxera daramala gau hordigarri baten erdian, inoiz amestu duen bezala. Ezinezkoa, ez dago modurik, lantoki sarrerako ordularia baino ez datorkio burura, ordenagailua imajinatzen du, kursoreak bere zain dagoela adierazten dio bere kliskada etengabeez.

Begiek izua islatzen dute funtzionarioaren begiradan, berean bakarrik, gainontzeko bezeroak beren goizeroko egunkarietara itzuli baitira, geratzen zaizkien hiru minutuak aprobetxatzeko; aldiz, kafetegiko beste izkinean dagoen emakume eder eta ezkondua ere izuturik dago, funtzionarioari so, eta une horretan ikara batek inarrosi egin dio bizkarrezurra, berak ere ezin duelako ametsik egin, lehenago egin ohi zuen bezala, gizon ezezagun harekin. Eskuez aurpegia estali du, negarraren atarian.

Etorri gurekin, esan du larriturik bikoteko mutilak, *badugu haien drogei aurre egiteko modurik*. Mirari batez bezala, emakume eder eta ezkondua bizkor ondoratu zaio funtzionarioari, heldu dio eskutik eta, hitzen beharrik gabe, neska-mutil haiengana eraman du. Bi minutu geratzen zaizkio funtzionarioari erabaki bat hartzeko. *Zatozte gurekin, jendea esnatzen lagundu behar diguzue*, esan die mutilak. Emakumearen begiak berdeak dira, lehen aldiz ikusi ditu funtzionarioak hurbiletik, txikitako erreka garbien ura ekartzen diote gogora. Bere ametsetako gizonaren eskua beroa da, aspaldi ez bezalako beroa sartzen zaio emakumeari zainetan barrena, inoiz ezagutu gabeko zerbait handi gertatuko zaiola sentitzen du, izarretan etxea egin ahalko du azkenik, bizirik sentiaraziko duen gizon batekin.

Minutu erdi bat falta da lantoki sarrerako ordularian; bat-batean, goizeroko oasi txikiaren mugak infinitoraino zabaltzen direla ohartzen ari da funtzionarioa, basamortua zena paradisu bihur daiteke, hogei segundutan erabaki egokia hartzeko ausardia biltzen asmatzen badu. Begi berde haien ur sakonetan sartu da, berriro hipnotizaturik, amets batean bezala sentitzen da; haren salbazio-bide bakarra begi horiek direla konturatu eta baietz egin du buruaz, baietz emakume eder eta ezkonduari, baietz neska-mutil haiei, baietz paradisuari. Hiru segundu, bi, bat.

Funtzionarioa izuturik esnatu da, bere betiko ohean, bakarrik, esnagailuak biip-biip luze batzuk egiten ditu, eta argi gorrizko 06:50 bat ageri da haren pantailan. Bihotza taupaka du oraindik; altxatu, eta goizeroko zereginak beteko ditu, oraindik erabat esnatu gabe: komunera joan, aurpegia garbitu, kafea berotzen jarri, jantzi... Zapatak ate ondoko armairutik ateratzen dituenean entzun du kafearen borborra. Esnea frigorifikotik atera, eta txurrutada labur bat erantsi dio, azukrea bota eta kafesnean goilaratxoa birarazten hasi da funtzionarioa, oharkabean ia, begirada eskuaren mugimendu hipnotikoan harrapaturik duela; zortzi minutuko oasia geratzen zaio edari beroa ahogozatzeko.

Zapatak ate ondoko armairutik ateratzen dituenean entzun du kafearen borborra. Esnea frigorifikotik atera, eta txurrutada labur bat erantsi dio, azukrea bota eta kafesnean goilaratxoa birarazten hasi da funtzionarioa, oharkabean ia, begirada eskuaren mugimendu hipnotikoan harrapaturik duela; zortzi minutuko oasia geratzen zaio edari beroa ahogozatzeko. Zapatak ate ondoko... zapatak ate... ate...

Kafesnean goilaratxoa birarazten hasi da funtzionarioa, funtz... funtz... oharkabean ia, kafesnean goilaratxo... goilara... goila...

Ostia, hi, hau izorratu duk, esan du ahots batek, *trafikatzaile alu horrek beste zinta hondatu bat sartu ziguk.*

Gixajo hau ere bota beharko diagu zabortegira, esan du beste ahots batek.

Biharamunean, kafetegian, izkinean egon ohi den emakume eder ezkondua irakurtzen ari den egunkariko kronika sailean "Amets trafikatzaileen beste biktima bat" titularra dator, eta haren azpian kazetariak estilo biluzi samarraz dio gobernu legalaren aurka dauden Ameslariak talde erreboltariak beste hiritar bat lobotomizatu duela legez kontrako ametsak egiteko dauzkaten makina arriskutsuekin.

Koldo Biguri
Idazlea

Ezabatuak zehazten, zehaztuak ezabatzen. Anafora kontuak

Itzulpenari dagokion gairen batez folio t´erdi bi folio idazteko eskatu didate; justu itzulpenari dagozkion sakoneko gai zabaletan ezin sartu baina itzultzeak dituen zalantza edo eztabaida puntu txiki horietako bati buruz iharduteko sobrakoa. Itzulpenaz hitz egitean, gainera, teoriazko nolabaiteko oinarrizko adostasun bat behar da lehendabizi, gero adostasun horretatik abiatuta gaiak banaka ukitu ahal izateko, zuhaitzak enbor sendoa behar duen bezala, gero adarretan zehar ibiltzeko. Ez dut uste ordea itzultzaileen artean, gure arteko itzultzaileen artean behintzat, hori gertatzen denik, ez dut uste teoriazko ez ikasketa eta are gutxiago iritzi antzekoak ere ditugunik; itzulpen gertaerei dagokien hiztegia bera ere ez dut uste bateratua dugunik.

Hala eta guztiz ere, itzulpenari dagokion gertaera orokor bat, gai orokor bat, aztertu nahi nuke, edo aztertzen hasi, edo azterbideak eman, orri hauetan: elipsiak eta zehaztapenak anafora katean, eta berorien itzulpena.

Anafora kateak

Diskurtsuari edo solasari buruz dauden idatzietan lehenengo momentutik esan ohi da diskurtsuari edo solasari koherentzia ematen dioten gertaera garrantzizkoenetako bat anafora katea dela, solasgaien errepikazio katea, alegia. Hain zuzen ere, solasa denbora lineal batean zehar gertatzen da, lehenik eta behin; adierazpenek ez dute aldiberekotasunik, adierazien aldiberekotasuna, nolabait, ulermenaren kontua baita; ulertzean, kontzeptu loturak egitean, bihurtzen dira adieraziak aldibereko. Solasean zehar, behin aipatutako gaiak behin eta berriro errepika daitezke, behin eta berriro berritu behar dira. Errepikazio edo berritze horiek, ordea, hiztunaren komunikazio estrategia eta taktika bati jarraituz, hizkuntz baliapide batzuen eta lege batzuen arabera egiten dira; baliapide horietako batzuk hizkuntza bakoitzak bere berezi dituenak dira, eta legeak ere, orobat, bereziak izan daitezke.

Errepikazio edo adierazpen berritzea, lehenik eta behin, oroimen kontua da, diskurtsuan zehar baliatzen den epe laburrerako oroimen kontua, baina ez zehazki hitz oroimen edo oroimen berbalaren kontua, ez baitira esandako hitzak gogoratzen, adierazi haien zentzua baizik. Errepikazio horietan mailak bereiz daitezke: guztizko errepikaziotik hasi eta testuinguruak bestek argitzen ez duen guztizko elipsi edo adierazpenaren ezabatzerainokoak. Bi mutur horien artean maila askotako anafora adierazpenak aurki daitezke: sinonimia eta antonimia gertaera guztiak, erakusle bidezko anaforak, proforma deituak (izen-ordainak, adjetibo-ordainak, aditz-ordainak...).

Anafora, gainera, bektoriala da, esan nahi baita, adierazien berritzea izan daitekeela (anafora zentzurik estuenean), edo izan daitekeela adieraztekoaren aurreratze (katafora). Bistan da aski oroimen gertaera desberdinak direla bata eta bestea, eta lege desberdinak dituztela horrenbestez.

Itzulpen prozesua

Eta itzulpenerako zer? Itzulpenean jatorrizko diskurtsu edo solas bat xede hizkuntzan berritzen da. Beti esan ohi da itzulpenean jatorrizko testuaren informazio berbera berritu behar dela; ez da ahaztu behar ordea, jatorrizko testuaren argitasuna, ulergarritasuna (edo iluntasuna eta ulergaiztasuna) testu haren koherentziak eragiten ditu neurri handi batean; eta alderdi horretatik, zinez esan daiteke, jatorrizko testuaren ulergarritasuna, argitasuna edo, oro har , koherentzia itzuli gabe, itzulpen onik, egokirik ez dela.

> Jatorrizko testuaren ulergarritasuna, argitasuna edo koherentzia itzuli gabe ez dago itzulpen onik

Itzulpen prozesua bera, itzultzaileen lanean gertatzen den bezala harturik, aztertzen bada, badirudi lehen itzulpen baten ondoren gertatu ohi dela itzulpeneko testuaren koherentziaren azterketa. Itzultzaileak esaldi zatiak eta esaldi laburrak itzuli ohi ditu lehenik, idatzi gabe bada ere; gero esaldi osoak antolatu ohi ditu; eta azkenik paragrafoaren antolamendua eta osakera aztertu ohi du —ailedi!

Jatorrizko testuak dituen anafora gertaera asko eta asko arras aldatzen dira prozesu horretan: hurbil zirenak urruntzea, urrun zirenak hurbiltzea, bitartean nahasgarri izan daitezkeen adierazpenak txertatzea... Azkenean itzulpeneko diskurtsuaren anafora katea oso osorik aztertu behar da berriro, eta berritik eratu. Sarritan gertatu ohi da adierazien elipsiak egin beharra, adierazi ezabatuak esplizitatu beharra, sinonimiaz baliatu beharra... diskurtsu koherentzia baten ordainez haren baliokide izango den beste diskurtsu koherentzia bat asmatu beharrez.

Itzulpenaren onerako azterketa alor zabala —eta emankorra— mugarrituko luke anafora gertaeren gai honek.

Josu Zabaleta
Itzultzailea

Udal-espedienteak: lan zaharra arnasberritzen

Duela lau urte, HAEEtik, udalei bidali genien jatorriz euskaraz sortutako udal-espedienteen sorta bat. Apala zen, ezin bestean, orduan HAEEn genuen helburua: geneuzkan baliabide eta aukeren tamainakoa. Guztiarekin ere, bere apalean, sorta horretako 24 espedienteak karpeta banatan eman genituen argitara; hasierako laurak ez, baina beste guztiak eskuragarri daude, gaur egun ere, HAEEn.

Espediente horiez gain, udaletan ere, han eta hemen, zenbait espediente euskaratu nahiz itzuli izan dira, jakina den bezala. Besterik ezean, bada, horiek guztiak dira dauden espedienteak, biltzeke eta bateratzeke badaude ere, nork geure aldetik lan horri ekin izan diogulako, beharraren beharrez. Horiek horrela, hona HAEEn gogoan hartu duguna:

Egungo egitasmoa

Bi ardatz nagusi beharko lituzke izan aurrerantzerako espedientegintzak, HAEEren ustez: udal guztietako espedienteak bildu eta zerrendatzea litzateke bata; gehien erabiltzen diren espedienteak eguneratu eta bateratzea, bestea. Nolanahi ere, ezinbestekoa da udalen parte hartzea, nola batean hala bestean, udalak berak direlako lantegi honetan ihardun eta ihardun ari direnak, egunero.

Espedienteek udal bakoitzaren beharretara egokitzeko modukoak izan behar dute

a) Udal guztietako espedienteak bildu eta zerrendatzea

Hainbat eta hainbat udali, jadanik, eskatu egin dizkiegu euskaraturik dituzten espediente guztiak, bilduta izan ditzagun. Bilketa-lanaren ondotik, eta udalen erantzunaren arabera, jakina, zerrendatu egingo ditugu, honako datuok ere, besteak beste, jasoko ditugularik:

— Udal-espedientearen izena.
— Espedientea euskaratu duen erakundearen izena.
— Lan horretaz arduratzen den pertsonaren izena.
— Euskaratzen ari den espedientearen izena.

Bistan da, zerrendarena aurrera eramanez gero, espediente kontuetan dabilenak, dabilen udaletxean nahiz erakundean dabilela, jakin izango duela zein espediente dagoen euskaratua eta zein ez. Hartara, espediente horietako baten beharrean aurkitzen denean, ez dauka lehendik besteren batek egindako lana zertan errepikatu; hori gabe, hobe du, noski, falta den espedienteren bat euskaratu, alfer-lanetan sartu gabe. Era horretan, nork geure ahalean eta heinean lan eginez, espedientez aski ongi osatuko ginateke, nor geure aldetik joan gabe, norberak egindakoa, apurra izanagatik, elkarri eskaintzeko prest bageunde denok ere.

b) Gehien erabiltzen diren espedienteak eguneratu eta bateratzea

Esaerak dioenez, "ardoa zaharkizun da on"; arestian aipatu espediente-sortari buruz, ordea, aitortu beharra dago, geroztik, lau urteotan, heldu zaizkigula hainbat berrikuntza, nagusiki, legediaren aldetik, Euskaltzaindiaren arauen aldetik, diseinuaren aldetik, eta, azkenik (baina ez azken delarik), idazkeraren aldetik: *Hizkera argiaren bidetik* liburua da hondarreko bi puntu horien argibide.

Ardoarekin gertatzen ez den bezala, bada, argitaratutako espediente-sorta hura eguneratu (eguneratzea da espedienteak "ontzeko" modu bat) beharrean gelditu zaigu, zaharkizunaren zaharkizunez.

Espedienteak ontzeko saio honetan, eguneratzeaz gain, bada beste lan bat ere, beharkizun dena: bateratzearena, alegia. Izan ere, batetik terminologiari dagokionean bateratu behar dira espedienteak, eta bestetik, tramitazioari eta inprimaki bakoitzaren edukiari dagokienean.

Terminologiaren kontuetan, esan dezagun, hiru herrialdeetako eta Nafarroako zenbait erakunde urratzen hasiak diren bidera joko dugula: denen artean adostasunez erabakitako terminoei makurtuko gatzaizkiela, bestela esanda. Horrela bada, adostasunik gabeko kasuetan soilik, eta bien bitartean, eutsiko diogu geure iritziari.

Espediente bateratuak lortzeko asmotan

Tramitazioari eta inprimaki-edukiari gagozkielarik, ia ezinezkoa da bete-betean lortzea bateratze-lan hori, udal bakoitzak bere autonomia eta bere beharrak dituelako. Halaz ere, UEMAkoen ekimenez, zenbait udaletako idazkariekin hasi gara aztertzen nolakoa behar duen izan bai espediente bakoitzaren tramitazioak eta bai inprimaki bakoitzaren edukiak, espediente bateratuak lortzeko asmoz. Espediente bateratua definitzekotan zera esango genuke, udalen berezko autonomiari ezer kendu gabe, udal orok bere beharretara egoki dezakeena litzatekeela espediente bateratua. Hots, espediente bateratua ez dela udal konkretu bakar batentzako soilik balio duena, udal bakoitzaren beharretara egoki daitekeena baizik.

Bai tramitazioa eta bai inprimaki-edukia bateratzeko lanetan, orain arte, bildu diren idazkariak honako udal hauetakoak izan dira: Altzo, Aulesti, Bakio, Bermeo, Etxebarria, Gaintza, Gatika, Lekeitio, Lizartza, Markina, Munitibar eta Ondarroakoa. Horiena ere aipatu beharra zegoen, egin duten ekarpena ez baita makala izan. Gure aldetik, hala ere, eskertuko genuke gainerakoetatik ere, era berean, etorriko balira; hartara, emaitza denontzat onuragarriagoa litzateke eta. Gai honi amaiera emateko, esan dezagun, beharrezko jo dugula herritarrek ulertzeko moduko azalpen-orri bat espediente bakoitzarekin eskaintzea, herritarrak ere jabe daitezen tramitazioari buruz. Are gehiago, inkesta bat ere egin izan dugu lehen aipatu herri zenbaiteko biztanle batzuekin, azalpen-orri horren ulergarritasuna frogatzeko. Alabaina, prest gaude guk lortutakoa baino ulergarritasun handiagoa lortzen duenari amor emateko, hala frogatzen badu inkesta bidez.

Azkenik, eguneratutako eta bateratutako espediente hauek, berrikusi egingo dira, legearen nahiz terminologiaren nahiz tramitazioaren nahiz beste alde batetik letozkeen berrikuntzen arabera espedienteak berritzeko, hots, zaharkizun geldi ez daitezen (espedienteak disketeetan jasoko dira aldaketak errazago egin ahal izateko). Badakigu eguneratu, bateratu eta berrikusteko lan hori zama astuna dela, eta luzarorakoa (esku askok hartu behar baitute esku), eta, horregatik beragatik, espediente gutxi batzuk baino ezin izango ditugula egin, oraingoz, astiro-astiro joatera beharturik gaudelako. Era horretan arnasberritutako espedienteek, ordea, urtetan iraungo dute iraun, beti gazte eta beti gordin, gainerako espedienteen ispilu.

Jexux Eizagirre
Udal-espedienteen biltzailea
HAEE

Amando de Miguelen txostenaren ondoren... zer?

Joan den abenduan, PPk, UAk eta PSE-EEk ponentzia bat aurkeztu zuten Batzar Nagusietan, Arabako egungo hizkuntz politikaren egokitasuna berrikusteko. Hasiera-hasieratik, hainbat arrazoi direla eta, eztabaida eta istilu ugari sortu zuen ponentziak.

Alde batetik, ponentzian inkesta edo ikerketa bat egitea erabaki zen, Arabako egoera soziolinguistikoa sakonago ezagutzeko. HBk, EAJk, EAk eta Victor Martínez independienteak, proposamen hori ikusirik, "elektoralismoa" egitea leporatu zieten gainerako alderdiei. Beste aldetik, PPk, PSE-EEk eta UAk EUSTAT baztertu zuten inkesta egiteko, eta Euskaltzaindia aholkulari ihardutearen aurka agertu ziren. Azkenik, alderdi hauek Amando de Miguelen Tabula V enpresa aukeratu, eta alderdi abertzaleek zeharo gaitzetsi zuten egindako aukera hori, izan ere, beraien ustez, Amando de Miguelen lotura politikoak eta katalanari buruz esandakoak nahiko arrazoi ziren soziologo horretaz ez fidatzeko.

Arabarrak euskara berreskuratzearen eta sustatzearen alde daude

Amando de Miguelen inkestak istilu eta tira-bira handiagoak ekarri zituen gero. Inkesta kutsu politikoko galderaz josita zegoela salatu zuten talde abertzaleek; de Miguelek, berriz, "arrazistatzat" jo zituen kritika horiek guztiak.

Martxoaren 27an, soziologoak inkestari buruzko txostena aurkeztu zuen Batzar Nagusietan. Inkestaren emaitzek ez zuten inor harritu: euskararen ezagutzari eta erabilerari buruzko datuak bat zetozen, neurri handi batean, EUSTATek aurrekoan emandakoekin. Euskararekiko jarrerari dagokionez, arabarrak euskara berreskuratzearen eta sustatzearen alde daudela jakinarazi zuen Tabula Ven galdeketak.

Soziologoaren iritziz, Araban "ikasketa-hizkuntzatzat hartzen dute gehienek euskara, eta ez erabilera-hizkuntzatzat". Horretaz gain, txostenak erakusten du euskara, oraindik ere, urrun dagoela normalizaziotik, baina "aurrera egiten ari dela apurka-apurka, eta hala jarraituko duela datozen urteotan". Bukatzeko, de Miguelek euskararen aldeko jarrerak bultzatzea gomendatzen du. Horretarako, piztu egin behar da, bere ustez, euskara ikasteko gogoa; ezin da, ordea, jendea ikastera behartu.

Iritziak iritzi, hona hemen Arabako Batzar Nagusietan sortutako Euskara Batzorde horretako kideek eta Hizkuntza Politikarako idazkari nagusiak txostenaren gainean proposatzen dutena.

Jesus Mª. Eizmendi
EAJko kidea Arabako Batzar Nagusietan

Amando de Miguelen ikerketatik honako ondorio hauek atera ditzakegu:

— Euskararen ezagutzari eta erabilerari dagokionez, EAEko administrazioak darabiltzan datuak erabat fidagarriak dira. Halaber, arabarrak euskararen eta elebitasunaren alde daude.
— Euskararen ezagutzak nahiz erabilerak aurrera egingo dute Araban poliki-poliki.
— Euskara ikasteari ekiten dioten askok ez du hizkuntza ikasten, eta gainera, euskaraz dakien askok ez du hitz egiten. Ondorioz, arabar horiek euskara ikasi, hitz egin eta arlo kultural eta profesional guztietan erabili ahal izateak izan behar du gure helburua.

Bukatzeko, ahaleginak egiten jarraitu behar dugu elebitasunaren bidetik ez aldentzeko. Bide honetan, arabar gehienen borondatea eta kultura demokratikoa izan behar ditugu eredu, hizkuntz interesak errespetatzeko. Agian, bide honek eramango gaitu gizartearen sentsibilitate guztiak onartzen dituen gizarte-pedagogia batera.

Juan Carlos de Andrés
PPko kidea Arabako Batzar Nagusietan

Amando de Miguelen txostenean, nabarmentzeko modukoa da honako hau: Araban dagoen desoreka euskararen exigentziaren eta benetako eskariaren artean. Bestela esateko, euskararen exigentzia —administrazioarena, batez ere— arabarron posibilitate eta eskaria baino askoz handiagoa da. Horrek bi gauza esan nahi ditu: batetik, egungo hizkuntz politikak presionatu eta estutu egiten duela gizartea; eta, bestetik, ez direla beharrezko formulak aurkitu herritarrek euskara ikas eta erabil dezaten.

Aurrerantzean, ponentziak hartutako helburuei begira lan egin behar dugu Batzar Nagusietan; hau da, ezagutza-mailara egokitu behar ditugu hizkuntz eskakizunak Araban. Gure ustez, hizkuntz politika ezin da bakarra eta bera izan lurralde guztietan; lurralde bakoitzeko egoera soziolinguistikoari begiratu behar diogu, beraz.

Antonio Sáenz de Santamaría

UAko kidea Arabako Batzar Nagusietan

Amando de Miguelen ikerketan argi ikus daiteke Arabako administrazio publikoek orain arte burutu duten hizkuntz politikak porrot egin duela erabat. Arrazoi bi dago horretarako:

— Hizkuntzarekiko jarrerak baldintzatzen dituen faktore "etnikoa".
— Euskara eguneroko ihardunean erabiltzen ez den hizkuntza izatea, hau da, hizkuntza "ikasia" izatea.

Alderdi politikoek hizkuntz politikaren akatsei antzeman, eta akordioak egin beharko dituzte akats horiek konpontzeko. Gure ustez, administrazioek, lehenengo eta behin, lan egin behar dute hizkuntza bat ala bestea erabiltzeagatik inor ez baztertzeko. Hori dela eta, lehentasuna eman nahi diogu kanpo-harremanetarako (administrazioa herritarrekin) euskalduntzeari: leihatilak, itzultzaileak, eta kultur suspertzaileak. Administrazioetako barne--harremanetarako euskalduntzeari, berriz, ez zaio gaur egun ekin behar. Bestalde, hizkuntz eskakizunak zehaztu egin behar dira berriro, eta herritarren nahietara eta hizkuntz ezagutzara egokitu. Azkenik, hizkuntz eskakizunek bat etorri behar dute gizartearen errealitatearekin. Horretarako, zonifikazioa proposatzen dugu.

Iñaki Olalde

HBko kidea Arabako Batzar Nagusietan

Azken urteotan ikerketa asko eta asko egin dira, Arabako eta Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren bilakaera ezagutzeko. Ikerketa horietan hemengo eta kanpoko adituek hartu dute parte. Dena dela, de Miguel jaunak egindako txostenaren planteamendua ez da egokia izan; hortaz, txosten hori ez da erreferentzi puntua izango egoera soziolinguistikoaren berri izateko, eta, are gutxiago, hizkuntz normalkuntza bideratzeko. Aldiz, txosten horri esker, eta, oro har, Batzar Nagusietako Euskara Batzordearen inguruan sortutako liskarrari esker, agerian geratu dira sektore politiko batzuk euskararen kontra egiten ari diren erasoa. Alderdi horiek saiatzen ari dira gaur egun euskararen inguruan dagoen adostasuna hausten; berreskuratze-prozesuaren joera positiboa geldiarazi nahi dute; hori guztia, hizkuntz normalkuntzari traba egingo diotelakoan.

Gure iritziz, Arabako euskalduntze prozesuari bultzada emateko behar-beharrezkoa da luze-zabal eztabaidatzea euskararen normalkuntzarako gauzatu beharreko hizkuntz politikaren inguruan. Gure ustez, hauek dira une honetako eginkizunak: euskararen aldeko gizarte-mugimenduak indartu, gizarte-dinamika areagotu, euskara berreskuratzea helburu duten indar politikoen partehartze zuzena eta eraginkorra bultzatu, indar politikoen, sozialen eta erakundeen arteko hitzarmenak sinatu, elkarri lagundu, administrazioaren euskalduntze planak berrikusi eta mekanismo berriak gauzatu benetako aurrerapausuak emateko.

Ernesto Ladrón de Guevara

PSE-EEko kidea Arabako Batzar Nagusietan

Galderari erantzuteko gogora ekarri behar dugu alderdi demokratikook Arabako Batzar Nagusietan lortutako akordioa. Akordio horretan erabaki genuen euskarari buruzko ponentzian urratutako bidetik jarraitzea agintaldi honetan. Tabula Vek Arabako Batzar Nagusientzat egindako ikerketa ezin da ahaztu eta apalean geratu. Alderdi demokratiko guztiok gogoetak egin behar ditugu hizkuntz politikaren inguruan eta baita ondorioak atera ere, izan ere, hizkuntz politikak euskara berreskuratzearekin ezezik bakearekin eta elkarbizitzarekin ere badu zerikusirik. Hori horrela, behar--beharrezkoa da Euskal Herriko herritar guztien artean adostasunik handiena lortzea; beraz, eztabaidatu eta Arabako errealitatera egokitu egin behar dugu hizkuntz politika, gogoko izan ala ez.

Jose Maria Zeberio

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkaria

Ikerketa hori egiteko eman zuten arrazoi edo aitzakia nagusia Arabako egoera soziolinguistikoari buruzko estatistika eta ikerketa ofizial guztiek erakutsitako emaitzak errealitatetik oso gora zeudela izan zen. Beraien azken helburua Arabako hizkuntz politika ikerketa berri honen emaitzen arabera eztabaidatu eta berrikustea zen. Baina ikerketaren emaitzek aldez aurretik bagenekiena berretsi dute, hots, arabar gehienak euskararen erabilera sustatzearen aldeko direla, Araban euskararen presentzia gero eta handiagoa dela eta honek ez dakarrela gaztelaniaren inolako galerarik. Are gehiago, Amando de Miguelen emaitzak, zenbaitetan, ikerketa ofizialek erakutsitakoak baino positiboagoak dira.

Imanol Barrutia

EAko kidea Arabako Batzar Nagusietan

Amando de Miguelen inkestaren emaitzek ez digute gauza berririk erakusten. Nik ateratako lehen ondorioa honakoa da: datu ofizialak egiazkoak dira eta zeharo baliagarriak. Azken hamabost urte hauetan euskarak Araba osoan izan duen aurrerakada kontuan, argi eta garbi esan dezakegu orain arteko hizkuntz politika egokia eta emankorra izan dela: horren lekuko, belaunaldi berriak elebitasunaren alde egiten ari diren apustua. Hezkuntzako eredu elebidunen eta euskararen beraren onarpena zabala da Araban. Euskara arabarron kulturaren ezaugarria da eta, beraz, gure hizkuntzak ekintza positiboak behar ditu, etorkizunean berreskuratu nahi baldin badugu.

Multimedia: etorkizuneko prestakuntza

Iraultza iritsi zaigu: gure begien aurrean zutik ageri da. Ez da informatikaren alorreko azken moda, baten batek pentsa lezakeen modura; hori baino gehiago da. Multimedia (MM) erabateko iraultza izan da eta goitik beherako aldaketa sakona ekarriko die komunikabide tradizionalei.

Informazioa azkar trukatzea da gaur egungo munduaren ezaugarri nagusia. Gure gizarteak gero eta informazio gehiago kontsumitzen du, eta, aldi berean, gero eta eraginkortasun handiagoa eskatzen du. Gizarteak komunikatu egin nahi du, baina horretarako badira eragozpenak: ohiko komunikazioaren kostu handiak eta denbora-falta, besteak beste.

Horrek guztiak eragin nabarmena du lanaren esparruan. Teknika eta teknologia informatikoa arrapalada bizian ari dira garatzen, eta egunero azaltzen dira produktu berriak merkatuan.

Informazioa eskatzen duen gizarte honetan behar-beharrezkoa da prestakuntza. Adibide bat ematearren esan dezagun gaur egungo ingeniari baten ezagutzak 3 urteko batez-besteko bizitza duela; hau da, ingeniari horrek egunero ikasten ez badu, bere ezagutza erdira gutxituko da 36 hilabeteren buruan.

Teknologia hau gaur praktikan jartzen duten erakundeek abantaila ikaragarria izango dute bihar

Arazoa honetan datza: "betiko" ikastaroak ez dira benetako beharretara egokitzen; batzuetan, ikasleak zenbait lurraldetan egoten dira banaturik; besteetan ez dago nahiko irakaslerik, ezta nahiko klaserik ere; enpresek edo administrazioek ezin diete langileei prestakuntzako ohiko ekintzarik eskaini, ekintza horiek garestiak direlako. Bestalde, prestakuntzarik ez ematea ere ez da aukerarik onena. Egoera bitxi honi irtenbidea aurkitzeko teknika eraginkorragoak erabili behar ditugu, eta, horretarako, informazioaren teknologiez baliatu. Honek izan beharko luke, beraz, irizpidea: leku batetik bestera mugitu behar direnak ez dira ikasleak, informazioa baizik.

Horrekin batera, informazio hori aurkezteko era erakargarriagoak aurkitu behar dira: ohiko liburuak ez dira nahikoak. Komenigarria litzateke testua, grafikoak, irudiak, soinua eta animazioa elkarrekin aurkeztea, mezuari errazago antzemateko.

Horretarako bide ematen duen teknologiari Multimedia deritzo. Askok eta askok konparatzen dute MM 1980. hamarkadako konputagailuen iraultzarekin; beste batzuk haruntzago iristen dira eta parekatu egiten dute MM-ren eragina eta telebistak edo idatzizko prentsa dutena.

Izan ere, azken batean, MM-k iraultza hauek guztiak biltzen ditu: telebistaren ikusentzutezko indarra, idatzizko prentsaren boterea eta konputagailuen ahalmen interaktiboa.

Zenbait argibide

Hainbat lekutan ikusten diren gaizki-ulertuak argitzeko asmotan esan behar dugu ez dagoela ez MM-konputagailurik, ez MM-pantailarik, ezta MM-CD-ROM irakurgailurik ere. Egon badaude, berriz, MM-softwareaz eginiko aplikazioak aurkezteko MM-ahalmenak dauzkaten konputagailuak, pantailak, CD-ROM irakurgailuak, eta abar.

Argitu beharreko beste puntua CD-ROMari dagokiona da, esan egin baita disko hauen barruan dagoena MM dela, erabiltzaileari honakoa azaldu beharrean: CD-ROMa MM-teknologiak erabiltzen duen soporte hutsa da eta bere kapazitatea, salneurria eta aldaezinezko informazioa kontuan, biderik egokiena da erabiltzailearengana MM-ren aplikazioak eta garapenak eramateko. Horixe da CD-ROMa, eta ez besterik.

Abantailak

MM-ren bidezko prestakuntzak ulertzeko moduan lantzen ditu ikasgaiak; eta, hain zuzen ere, horixe da erakunde publiko eta pribatuek MM erabiltzerakoan lortu nahi dutena. Konputagailuetan, bideoetan eta klaseetan oinarrituriko prestakuntzak ez du askotan behar bezala komunikatzen. Aldiz, MM-ren ezaugarririk boteretsuena honako hau da: erabiltzaileak entzun, ikusi eta erabili egiten ditu ikasitako gaiak. MM erabat interaktiboa da, eta teknologia hau erabiltzearen abantaila nagusiak ondokoak dira:

1. Ikasten emandako denbora %50ean murrizten da.
2. Kostuak ere behera egiten du, aplikazio bera milaka ikaslek erabiltzen dutelako.
3. Prestakuntza beti kalitate berekoa izaten da; ez da aldatzen, beraz, irakaslearen edo eskolaren arabera.
4. Askatasuna handiagoa izaten da, ikasleak nahi duenean eta nahi duena galde baitezake; erritmoa norberak finkatzen du.
5. Ikasleak errazago gogoratzen du ikasitakoa, zentzumen gehiago erabili duelako.
6. Segurtasuna areagotu egiten da, praktikak arriskurik gabe egin daitezkeelako.
7. Motibazioa handitu egiten da, ikaslea adi-adi egoten baita.
8. Ikaslea aktibo bihurtzen da.

Oro har, onartu egiten da ondorengoa: gizakiak entzuten duenaren %20a gogoratzen du, entzuten eta ikusten duenaren %40a, eta entzuten, ikusten eta egiten duenaren %75a. MM-k, beraz, badu zerikusirik gogoratzeko dugun ahalmenarekin, eta ondorioz, eraldatu egiten du ikasleen jokabidea; informazio-



-ontzi geldoa zena heziketa-prozesu aberatseko partehartzaile aktibo bihurtzea lortzen du. Hortaz, MM-ren teknologia interaktiboak bide zabala urratzen du ikasleengana iristeko, beti ere, heziketa intuitibo eta ikertzailearen bidez.

Hori gutxi balitz, bada besterik: MM erraz eraman daiteke toki batetik bestera. Horixe beste abantaila gainontzeko teknologien aldean.

Berehalako *feedbacka*

MM-ren bidezko prestakuntza heziketako esperientzia bakarra da. Bakarra, besteak beste, *feedbackera* jotzeko aukera ematen duelako. Prestakuntzako ekintzetan behin eta berriro egiten zaizkie galderak ikasleei, eta momentu horretan bertan konturatzen dira gai horiek ulertu dituzten ala ez. Ondo diseinaturiko MM-programako galdera horien bidez ikasleak *feedbacka* izango du lagun, eta ikusi egingo du informazioa behar bezala jaso duen ala ez. Hori horrela, ikasleren batek zer edo zer ulertu ez badu, programak berriro irakatsiko dio gai hori.

Multimediaren bidezko prestakuntza erabat interaktiboa da

Autodiagnosirako bide sinplea izan daiteke: ikasgaiaren barrena sakabanatutako aukera anitzeko galderak egin, kontzeptuak ulertu diren ala ez ziurtatzeko. Horri esker, bai irakasleak eta bai ikasleak bere aurrerapenaren berri eduki dezakete hurrengo atalera pasa baino lehen.

MM-inguruneko azterketak hainbat modutan egin daitezke: ikasi aurretik egindako azterketek ikasleak prestakuntza hasi baino lehen zituen ezagutzak neur ditzakete; ikasi ondorengo azterketek, halaber, ikasleak zenbateraino aurreratu duen egiazta dezakete. Hala, autodiagnosirako azterketak, gehienetan puntuaziorik gabeak, heziketako esperientziaren zati bihurtzen dira.

Erabileraren malgutasuna da MM-ren ezaugarririk nagusienetakoa. Ez dago bide bakarra MM-programa erabiltzeko; prestakuntzako ekintzak arrakastaz gauzatzeko aukerak, ordea, kontaezinak dira.

Informazioa noiznahi

Nabari-nabaria da teknologia berri honek heziketan duen eragina; antzeko eragina dute klaseek eta prestakuntzako beste teknika tradizionalek ere. Dena dela, teknika horiek guztiak askoz ere eraginkorragoak izan daitezke MM-rekin batera gauzatzen badira.

Klasea hasi baino lehen ikasleak ulermen-maila egokira iritsi daitezke, baldin eta MM-ren materiala erabiltzen badute. Klasearen ondoren ere, ikasitakoa berrikusi eta gaiak sakonago azter ditzakete. Klasea aurrera doan heinean, gaiak aurrera doaz. MM-k funtsezko oinarria eskaintzen du, beraz, horren gainean informazio sendoa eraiki ahal izateko.

MM prestakuntzarako tresna nagusia izango da etorkizunean, eta ez bakarrik eraginkorragoa izateagatik edo dirua aurrezteagatik. MM-ren abantailarik handiena bere lehiakortasunean datza, lanpostuan bertan ematen baitie informazioa gure baliabiderik garrantzitsuena osatzen dutenei: pertsonei. Teknologia hau gaur praktikan jartzen duten erakundeek abantaila ikaragarria izango dute bihar besteen aurrean.

Luis Elizondo
HAEEko Prestakuntza Zerbitzuko teknikaria



Euskararen Jarraipena

Hizkuntza Politikarako Sailordetza
Gasteiz, 1995
308 or.

Maiatzaren 5ean, Donostian, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Hizkuntza Politikarako Sailordetzak argitaratutako *Euskararen Jarraipena* liburua aurkeztu zen.

Argitalpen horretan, Euskal Herriko hiru lurraldeetan — Euskal Autonomi Elkartean, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian— egin den lehen soziolinguistikako inkesta handiaren emaitzak biltzen dira.

Euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez dagoen liburu hau hiru gairen inguruan dago egituratuta: hizkuntza gaitasuna, euskararen erabilera eta euskararekiko interesa eta jarrera. Hori guztia, grafiko, irudi eta mapez hornituta. Bestalde, egiten dira ere euskararen hizkuntza plangintzari buruzko zenbait iradokizun.

Liburuan jasotzen den ikerketari esker, euskaldunek soziolinguistikako tresna dute erabilgai beren hizkuntzek Euskal Herriko hiru lurraldeetan izandako atzerapen eta aurrerapenak hobeto aztertzeko.

Euskararen aldeko hizkuntza politikarik dagoen tokietan, euskara sendotu edo berreskuratzen ari da

Laburbilduz, ikerketatik bi ondorio nagusi atera daitezke. Batetik, euskararen aldeko hizkuntza politikarik dagoen tokietan, euskara sendotu edo berreskuratzen ari den bitartean, alderantzizkoa gertatzen ari dela euskararen erabilera sustatzeko politikarik ez dagoen tokietan. Bestetik, euskaldunok gure hizkuntzari leialtasun handia diogula egiaztatu da, familiaren bidez euskararen belaunez belauneko jarraipenari eusteaz gain, euskaraz hitz egiten baitugu horretarako baldintza egokiak ditugunean.

Azkenik, liburu mardul horren laburpen-foiletoak (euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez) kaleratu dituzte Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Hizkuntza Politikarako Sailordetzak eta Nafarroako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak, emaitzen berri luze-zabal emateko. Foiletoak doan banatzeko egin dira, eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren bidez eskura daitezke. Liburua, berriz, salgai dago liburudendetan.

Miren Mateo
Hizkuntza Politikarako Sailordetza
Ikerketa eta Informaziorako Zuzendaritza

Hizkuntz eskakizunak Gipuzkoako toki administrazioan II. Errepublikaren garaian (J. Mª. de Leizaola Saria)

RODRIGUEZ, J. A. UNANUE, J.
HAEE/IVAP
Gasteiz, 1994
157 or.

II. Errepublikaren garaiko hizkuntz politika —presio soziolinguistikoak bultzatuta— ez zegoen planifikaturik, eta toki-erakundeen borondate politikoan oinarritzen zen erabat. Saritutako lan bikain honetan, besteak beste, garai hartako zer-nolakoak eta oraingo egoerarekiko aldeak azter daitezke.

Gizarte laneko euskara

MENDIZABAL, J.
Donostiako Lan Sozialerako Unibertsitate Eskola
Donostia, 1994
125 or.

Eskuliburu honetan, gizarte-langileek beren eginkizunak betetzeko erabiltzen dituzten testuak jorratzen dira: txostenak, informazio-orriak, inprimakiak, gutunak... hori guzti hori hainbat egoera komunikatibotan, eta hizkera-maila ezberdinak erabiliz: teknikoa, arrunta, tokian-tokikoa e.a.

IKERBILA 94: Euskal Herriari buruzko ikerketak

DE OJANGUREN, P.M.
BBK
Bilbo, 1995
234 or.

IKERBILA datu-basea da, eta, bertan, Euskal Herriari buruz egindako ikerlanak biltzen dira. Ikerlan horiek sailkatzeko hainbat bide erabiltzen ditu egileak: ikerlarien izen-abizenak, lanaren izena, gaia, erregistroa eta abar. Argibide horiek guztiak liburuan eta disketean aurki daitezke.

Euskarari buruzko oinarrizko legeria

ARTEZ Euskara Zerbitzua
Bilbo, 1994
95 or.

Euskararekin eta hizkuntza minorizatuekin zerikusia duten legeak jasotzen dira disketea dakarren liburu honetan. Euskararen egoera juridikoa bere osoan ezagutzeko bide ematen duten lege horiek jatorri anitzekoak dira: Europako Elkartekoak, Frantziako eta Espainiako estatukoak, Nafarroakoak eta Euskal Autonomi Elkartekoak.

Gestión de calidad total en las administraciones públicas

Generalitat Valenciana
Valentzia, 1994
140 or.

Valentziako Generalitat-ek kaleratutako argitalpen honetan hainbat hitzaldi interesgarri biltzen dira. Kudeaketa-sistema berriak, kalitatearen erronka, bezeroen garrantzia, nazioarteko ekarpenak eta beste zenbait gai aurkituko ditu etorkizuneko administrazioan sakondu nahi duenak.

Hitz gezidunak



LUMA

Euskararen inguruko zenbait telefono

- AEK: 94/424 17 10
- Argia: 943/37 15 45
- EIZIE: 943/42 91 66
- EKB: 943/46 66 50
- Euskal Herrian Euskaraz: 943/27 82 69
- Euskal Irrati Telebista (EITB): 94/681 66 00
- Euskal Kulturaren Erakundea: 07-33-59 93 25 25
- Euskaldunon Egunkaria: 943/37 15 45
- Euskaltzaindia: 94/415 81 55
- HABE: 943/42 91 20
- Helduen Euskalduntzerako Euskaltegia (HEI): 948/17 76 70-54
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP): 945/18 76 00
- Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia: 945/18 81 10
- Ikas eta Ari (IKA): 945/28 29 22-44
- IRALE: 945/27 44 00
- Itzulpen Zerbitzu Ofiziala (IZO): 945/18 76 56. Fax: 945/18 76 03
- Kultura Saila: 945/18 94 64
- Nafarroako Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusia: 948/10 71 84
- UZEI: 943/47 33 77

Galdera-sorta

❶ Joan den apirilean Iqbal Masih hil zuten. Zergatik da ezaguna mundu osoan pertsonaia hori?

A Erregimen islamdarraren kontra liburuak idatzi zituelako.
B Argeliako emakumeen eskubideak defendatu zituelako.
C Pakistanen, haurrak esplotatzearen aurka borrokatu zelako.
D Indiako "Sij" buruzagi famatua izan zelako.

❷ Lander pertsona-izena da, baina länder herrialde bateko hainbat lurralde ere badira. Zein da herrialde hori?

A Txekiar errepublika.
B Alemania.
C Polonia.
D Kroazia.

❸ Zein izan da aurtengo Oskar sarietan arrakasta izan duen *Forrest Gump* filmearen zuzendaria?

A Spielberg.
B Zemeckis.
C Polanski.
D Attenborough.

❹ Zenbat lagunek osatzen dituzte batzar nagusiak hiru lurralde historikoetan?

A 83.
B 69.
C 75.
D 51.

❺ Frantziako lehendakaritzarako hauteskundeen ondoren, zein izendatu dute lehen ministro?

A Jospin.
B Chirac.
C Balladur.
D Juppe.

❻ Troiako gudu famatua izan zen lekura joan nahi izanez gero, nora joan beharko zenuke?

A Turkiara.
B Greziara.
C Albaniara.
D Errumaniara.

❼ Zein da mamelukoen jatorrizko herrialdea?

A Hungaria.
B Tunisia.
C Egipto.
D Portugal.

❽ Zein da Bilboko Orkestra Sinfonikoaren zuzendaria?

A Javier Belloportu.
B Theo Alcántara.
C Florencio Torrelledó.
D Antonio García-Asensio.

❾ Juan Infante Bilboko kultur elkarte bati lotuta dago. Zein da elkarte hori?

A ABAO.
B El Sitio.
C El Cocherito.
D La Bilbaina.

❿ "Goiztiarra" eta "garnatxa" nekazaritzako bi produktu-mota dira. Zein da produktu hori?

A Mahatsa.
B Piperra.
C Patata.
D Sagarra.

Goitibehera

Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondorengo hitzaren anagrama da. Zer da anagrama bat? Hitz baten letrak beste era batera ordenatu ondoren lorturiko hitza: naiz/zain/zina.



1. Espetxea. 2. Bizk. Zuzenak. 3. Pl. Zuhaitz mota. 4. Kaltzio-oxidoa. 5. Ehun metro koadro. 6. Modua. 7. Gaixoa. 8. Haizea. 9. Barrukia. 10. Amorrua. 11. Arabiarren hizkuntza.



1. Zuri. 2. Jauzkari. 3. Salatzaile. 4. Mundua. 5. Erreka. 6. Sagu, hitz elkarketan. 7. Tema. 8. Zazpi eguneko denbora tartea. 9. Ipar. Solairua. 10. Arerioak. 11. Tapatuak.

Soluzioak



ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak BI URTE bete ditu

GERO ETA HARPIDEDUN GEHIAGO

GURE HARPIDEDUNAK EUSKAL HERRIAN

EUSKAL HERRITIK KANPO
20

Bi urte euskaraz



IVAP

Euskal administrazioen eta herritarren zerbitzuan

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde Autonomiaduna
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ARIKETAK

9

ADMINISTRAZIO IDAZKIAK

1 Angel Belakortu Sosoaga zara, Arrazibaleko Udaleko alkatea. Irailaren bostean (asteartea), eguerdiko hamabietan, ekitaldi bat izango da udal-liburutegi berrian, hain zuzen ere, liburutegi hori inauguratzeko.

Ekitaldi honetara Josune Losada Ibargutxi andrea gonbidatu nahi duzu. Presta ezazu, bada, gonbita.

ARIKETAK

GRAMATIKA

❷ Aukera ugari badago ere, osa ezazu hitz elkartu bana bi zutabetan banatuta dauden hitzekin; baina, gogoan izan hitz batzuek bukaerako "a" gal dezaketela, beste batzuek marra hartu e.a.

1.- *Literatura*	1.- *Elkarte*
2.- *Burdina*	2.- *Arazo*
3.- *Jaiotza*	3.- *Eskakizun*
4.- *Ardi*	4.- *Arau*
5.- *Ekonomia*	5.- *Tradizio*
6.- *Hizkuntza*	6.- *Biltzaile*
7.- *Natur*	7.- *Fabrika*
8.- *Ortografia*	8.- *Arrisku*
9.- *Zerga*	9.- *Kirol*
10.- *Herri*	10.- *Esne*
11.- *Autonomia*	11.- *Zientzia*
12.- *Kutsadura*	12.- *Kontrol*

❸ Hona, jarraian, zenbait hitz elkartu. Horietako batzuk ondo idatzita daude, eta beste batzuk, berriz, gaizki. Adierazi zein dagoen ongi eta zein ez, eta zuzendu zuzendu beharrekoa.

	ONDO	GAIZKI
1.- ***Euskal-mendi-elkarteek*** *ekintza ugari antolatzen dute urtean barrena.*	☐	☐
.....		
2.- ***Berri-berriak*** *dira zerbitzura ekarri dituzten konputagailuak.*	☐	☐
.....		
3.- ***Bulegoz-bulego*** *ibili izan arren, oraindik ez daki norekin hitz egin behar duen.*	☐	☐
.....		
4.- *Liburutegiko apal horretan dauden liburu guztiak* ***argitaratu-berriak*** *dira.*	☐	☐
.....		

ARIKETAK

	ONDO	GAIZKI
5.- ***Giza-mugimenduak*** *sekulako indarra hartzen ari dira Euskal Herri osoan.*	☐	☐
.....		
.....		
6.- *Benetako neurriak hartu behar ditugu* ***itsas hondakinei*** *aurre egiteko.*	☐	☐
.....		
.....		
7.- ***Lan-eske*** *ibili da azken hilabeteotan, baina ez du ezer aurkitu.*	☐	☐
.....		
.....		
8.- ***Eskuartean*** *daukazun txostena utzi, eta joan zaitez nagusiarekin hitz egitera.*	☐	☐
.....		
.....		
9.- ***Aldian aldian*** *egiten ditugu honelako lanak.*	☐	☐
.....		
.....		

4 Ondorengo hitz elkartuak marrarik gabe eta banatuta daude. Marra jarri, lotu edo banatuta utzi, baina proposatutako gomendioen arabera.

1.- *Aita amak* .....

2.- *Lan hitzarmen* .....

3.- *Vitoria Gasteiz* .....

4.- *Euskal Autonomi Elkartea* .....

5.- *Diru bilketa* .....

6.- *Han hemenka* .....

7.- *Erdal testuak* .....

8.- *Hezkuntza arloa* .....

SOLUZIOAK

1

NIK, ARRIZABALEKO UDALEKO ALKATEAK

atsegin handiz gonbidatzen zaitut, Josune Losada Ibargutxi, udal-liburutegi berriaren inauguraziora.

Eguna: 1995-09-05 (asteartea)
Ordua: 12:00
Tokia: udal-liburutegiaren egoitza

Nik, Angel Belakortu Sosoagak, bide batez, nire onginahia adierazten dizut.

Arrizabal, 1995eko uztailaren 28an

2

1.- Literatur tradizioa / Literatura(-)tradizioa
2.- Burdin fabrika / Burdina(-)fabrika
3.- Jaiotza-kontrola
4.- Ardi-esnea
5.- Ekonomi arazoak / Ekonomia(-)arazoak
6.- Hizkuntz eskakizuna / Hizkuntza(-)eskakizuna
7.- Natur zientzia / Natura(-)zientzia
8.- Ortografi arauak / Ortografia(-)arauak
9.- Zerga-biltzailea
10.- Herri-kirolak
11.- Autonomi elkartea / Autonomia(-)elkartea
12.- Kutsadura-arazoak

3

	ONDO	GAIZKI
1.- *Euskal-mendi-elkarteek ekintza ugari antolatzen dute urtean barrena.* **Euskal mendi-elkarteek** ekintza ugari antolatzen dute urtean barrena.	☐	☒
2.- *Berri-berriak dira zerbitzura ekarri dituzten konputagailuak.* **Berri-berriak** dira zerbitzura ekarri dituzten konputagailuak.	☒	☐
3.- *Bulegoz-bulego ibili izan arren, oraindik ez daki norekin hitz egin behar duen.* **Bulegoz bulego** ibili izan arren, oraindik ez daki norekin hitz egin behar duen.	☐	☒
4.- *Liburutegiko apal horretan dauden liburu guztiak argitaratu-berriak dira.* Liburutegiko apal horretan dauden liburu guztiak **argitaratu berriak** dira.	☐	☒
5.- *Giza-mugimenduak sekulako indarra hartzen ari dira Euskal Herri osoan.* **Giza mugimenduak** sekulako indarra hartzen ari dira Euskal Herri osoan.	☐	☒
6.- *Benetako neurriak hartu behar ditugu itsas hondakinei aurre egiteko.* Benetako neurriak hartu behar ditugu **itsas hondakinei** aurre egiteko.	☒	☐
7.- *Lan-eske ibili da azken hilabeteotan, baina ez du ezer aurkitu.* **Lan eske** ibili da azken hilabeteotan, baina ez du ezer aurkitu.	☐	☒
8.- *Eskuartean daukazun txostena utzi, eta joan zaitez nagusiarekin hitz egitera.* **Esku artean** daukazun txostena utzi, eta joan zaitez nagusiarekin hitz egitera.	☐	☒
9.- *Aldian aldian egiten ditugu honelako lanak.* **Aldian-aldian** egiten ditugu honelako lanak.	☐	☒

4

1.- *Aita amak*
Aita-amak

2.- *Lan hitzarmen*
Lan-hitzarmen / Lan hitzarmen

3.- *Vitoria Gasteiz*
Vitoria-Gasteiz

4.- *Euskal Autonomi Elkartea*
Euskal Autonomi Elkartea

5.- *Diru bilketa*
Diru-bilketa / Diru bilketa

6.- *Han hemenka*
Han-hemenka

7.- *Erdal testuak*
Erdal testuak

8.- *Hezkuntza arloa*
Hezkuntza-arloa